



■ HERNANI-ASTIGARRAGA

Komertzio txikiak, argitasuna edo itzala?

Hernanin aurreko urtean egin zuten bezala, plastiko beltzez estali dituzte komertzioetako erakusleihoak, Astigarragan. Komertzio txikien egoera kezagarriaz ohartarazi nahi dute.

BAT egin dute, Beterri eskualdeko merkatariak, ostegunean abiatu zen sentsibilizazio kanpainan. Komertzio txikiaren egoera kezagarriaz ohartarazi nahi dituzte herritarrek, eta horretarako, «herri triste eta hilaren irudia» erakutsi nahi dute, erakusleihoak plastiko beltzekin estalita. Hala egin dute Astigarragan, iaz Hernanin bezala. Aldiz, kale-atera dira merkatari hernaniarrak, alaitasuna transmitituz. /8-9



Mugitzeko, hamaika modu

Mugikortasun Astea izaten ari da Europa osoan, eta Urumea Bailaran ere, mugitzeko modu jasangarriagoen bila dabiltza herritarrek egunotan. /2-10

■ HERNANI

Karabel auzoko festa, gaur

Gaur ospatuko dituzte festak, Karabel auzoan, egun osoko egitarau zabalarekin. Denetik izango da, paella-jate herrikoa eta bingoa tartean. /2

■ ASTIGARRAGA

Sagardoetxea herri osora zabaltzeko, proposamena

Sagardoetxearen kokaleku berria aztertzeko, prozesua burutu dute joan den hilabeteetan, Dunak taldearen eskutik. Eraikina mantendu, eta herriko puntu gehiago tematizatzea proposatu dute. /10

■ GOIZUETA

Festa giroan agur Goizuetari, Iskibik

Iskibi kanpiña itxiko dute Joseba Elizegi, David Alcrudo eta Joxe Manuel Maritxalarrek; eta goizuetarrei eskerrak emateko, festa antolatu dute gaur gauean. /14

■ EREÑOTZU

Frontoia 'Inpernu', gaur zortzi

Inpernuko kontzertua eskainiko du datorren larunbatean, Ereñotzuko frontoian, Xabi Solano Maizak. Sarrerak salgai daude, Hernaniko Biterin, 12 euroan. /15

GAUR KRONIKAN

Hernani /2-6

Hernani Kultura, Euskara Ari Du, errugbia, eskelak...

Astigarraga /10-13

Plenoa, Sagar Uzta, AEK, eskubaloia, kirolak...

Goizueta /14-15

Arano /15

Ereñotzu /15

Tailandia
IRTEERA KONFIRMATUA

2019ko maiatzan Lasarte Oriatik, Nooak gidatua

NOOAK
BIGAIAK

T.: 943 873 813 • info@nooak.eus • Hipodromo Elorbidea 10, Lasarte-Oria

KUE
Mertzeria
Lentzeria

PIJAMAK, GALTZERDIK,
ENKAJEDUN KAMIXETAK,
LEGGINSAK, BOXERRAK,
PANTYAK, ATERKIAK...

943 55 13 66
Elkano kalea, 13. Hernani

"CLARY ETXEA"

LIKIDAZIO TOTALA

Urriaren 11ra arte

Gudarien enparantza, zig. Hernani
943 55 23 86

IRUBIDE JATETXEA
Zure jatetxea, Epelen

Epele auzoa, 7
943 552 480 - 647 208 702

■ MUGIKORTASUN ASTEA

Patin eta bizikletak aurrena, Mugikortasun Astean

Koxka elkarteak antolatutako kirol egokituaren ginkana izan zen atzo. Gaur, patinek izango dute lehentasuna, eta bihar, bizikletek.

MUGIKORTASUN Jasangarriaren Astea ospatzen da Europa osoan egun hauetan, eta baita Hernanin ere. Horrela, modu osasuntsuan eta ingurugiroa zainduz mugitzeko moduak sustatzea da helburua, eta baita ere kontzientziarazioa bultzatzea, edozein tokitara iristeko bide eta moduak herritar guztiarentzat iragarriak izan daitezkeen.

Atzo, Kemeneke, Hernadeseke, AGIk, AGAEBek eta Koxka elkarteak antolatutako kirol egokituaren ginkana egin zen, eta gaur eta bihar, patinetan, bizikletan edo oinez ibiltzen direnak izango dute lehentasuna, kotxeen aurretik.

Patinak eta Ipar Martxa

Gaurkoan, oinez edo patinetan ibiltzen direnak hartuko dute protagonismoa.

Goizeko 10:00etan, Plaza Berrin elkartu eta patinetan ibilbide bat egiteko aukera izango da.



Besteen lekuan jartzeko aukera izan zuten hernaniar gaztetxoek.

Era berean, 10:30etan, Ipar Martxa egiteko oinarritzko ikastaroa emango da, martxan abiatu aurretik. Atsegindegin egingo da, eta euria egingen badu, kiroldegian.

Gero, 11:30etan, Patin Festa egingo da Urbieta kalean, eta 12:15etan patinatzaile trebatuak eta txapelkunak ibiliko dira beren abileziak erakusten. Hamaiketako izango dute gero, partehartzaileek.

Bizikletak, bihar

Bizikletek hartuko dute bihar protagonismoa. Goizeko 09:30etatik 12:00etara, bizikleta ibilaldia egin ahal izango da Atsegindegitik aterata, eta bertan geratu nahi dutenek bide heziketa zirkuitoa izango dute aukeran.

Zinkoenean, berriz, ibilgailu hibrido eta elektrikoaren erakusketa jarriko da, eta horietako batzuk probatzeko aukera ere emango da. ■

■ KARABEL AUZO EGUNA

Auzotar guztiak elkartzeko aitzaki gaur, Karabeleko Festa

Goizeko 10:00etan dianak emango dio hasiera Karabeleko Auzo Egunari, eta jolasak, txapelketak, jan-edana... izango dira.

EGUN bakarreko festa egiten da Karabel auzoan, baina ondo pasatzeko nahikoa ekitaldi izaten dira, auzotar guztiak elkartzeko, eta herritarrek ere auzora gerturatzera gonbidatzeko.

Goizeko 10:00etako dianarekin jarriko da jai giroa, eta egun osoan zehar izango da makina bat ekitaldi, haur nahiz helduentzat.

Jolas, puzgarri eta buruhaundiak, txikienentzat

Dianaren ondoren, aurpegia margotzeko tailerra eta puzgarriak izango dira txikienentzat. Eta segidan, buruhaundiak aterako dira.

Eguerdi partean, berriz, haurrentzako animazio saioa gidatuko du Lekimek.

Arratsaldean ere beste hainbat ekintza izango dituzte haurrek aukeran: jolasak, txokolatada, zunba...

Jan-edana, denak elkartzeko

Helduentzako ekitaldirik ere ez da faltako; tortila eta bizkotxo lehiaketa, adibidez, edota sagardo dastaketa. Beste hainbat ekintza, ordea, denek elkarrekin ondo pasatzeko izango dira: toka txapelketa edota bingoa, paella-jate herrikoia, zunba...

Azken traka 00:00etan bada ere, lasai asko luzatu ahal izango da festa; bihar, igandea! ■

KARABELEKO AUZO EGUNA

- 10:00 Diana.
- 10:30 Aurpegi margoketa eta puzgarriak.
- 11:00 Buruhaundiak.
- 12:00 Tortila eta bizkotxo lehiaketa (bosnan entregatu behar dira, beranduenez, 11:45etan).
- Haurrentzako animazioa, LEKIMEkin.
- Sagardo dastaketa.
- Toka txapelketa.
- 14:00 Paella-jate herrikoia.
- 15:30 Bingoa.
- 17:00 Joku herrikoia.
- 18:30 Txokolatada.
- 19:00 Zunba.
- 21:00 Nemus DJa.
- 22:00 Zezensuzkoa.
- 00:00 Traka eta suak.

*Kamixeta eta zapiak, paella jaterako bartelak eta bingoarako kartoiak atzo arte izan ziren salgai.

■ HERNANIN ZERO ZABOR

Erraustegira martxa, bihar

Aurrena, gelditu zutenei aitortza egingo diete, arratsaldeko 16:00etan hasita.

IRAULTZA Txikien Asanblada jardunaldia burutzen ari dira asteburu honetan Zubietan, «bestelako Euskal Herria amesten dugun herritar eta herri mugimenduen topaleku». Asteburu osoko programa osatu dute, eta erraustegira egingo dute martxa bukatzeko, igandean.

Arratsaldeko 16:00etatik aurrera izango da, eta Hernanin Zero Zabor taldeak dei egin du parte hartzeko.

Aitortza eta martxa, bihar

Ekitaldi horretan, aurrena, aitortza egingo diete erraustegia gelditu zutenei: «Helburua izango da balioan jartzea orain urte batzuk erakundeetan per-

tsona batzuek egin zuten lana. Erakutsi zuten multinazional eta bankariei aurre eginez, herritarren mesede diren erabakiak ere har daitezkeela». Eta gero, Gipuzkoa Zutikek antolatuta, erraustegira eta makro-kartzelara buzo zurien martxa egingo dute.

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak bat, deialdiarekin

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak, Hernaniko taldea kide denak, eskertu egin du «Zubietan egitea aukeratu izana, erraustegiaren aurkako borrokari ikusgarritasuna emanez». ■

■ EH BILDU

Herri bilgunea, gaur

Aurreko astean hasi zen Hernaniko EH Bildu 2019ko udal hauteskundeetan gaia jorratzen, eta gaur jarraituko du, beste Herri Bilgune batean. Bertan, 2015-2019 legegintzaldiko balantzea egingo dute, eta etorkizuneko erronkak ere zehaztuko dituzte. Gaur izango da zita, goizeko 09:30etan hasita, Biterin. ■

■ GAZTELEKUA



Meriendatzeko aukera izan zuten gaztetxoek, Gaztelekuaren irekiera-festan.

Ateak irekita, gazteak hartzeko prest!

Joan den asteartean ireki zituen atea Hernaniko Gaztelekuak merienda eta musikarekin eman zion ongietorria ikasturte berriari. Hemendik aurrera, 12 eta 17 urte bitarteko gazteak hartzeko prest egongo da, bi txandatan: aurrenekoa, 2-14 urte bitarteko gazteentzat, 16:30etatik 18:30etara; eta bigarrena, 14 eta 17 urte bitartekoentzat arratsaldeko 18:30etik 20:30era. ■

■ HERNANI KULTURA



Agurtzane Aizpuru teknikaria, Koro Etxeberria zinegotzia eta Rakel Gonzalez liburutegiko arduraduna herenegun, Biterin.

«Urrats berezia» literatura arloan, udazkeneko agendan

Pello Añorgaren ipuin kontaketa eta 'Microclimate' ikuskizuna eskainiko dituzte datorren astean. 'Hitz-andana' jardunaldiak ordezkatu du 'Hernani Hitzetan' ekimena, urrian.

IKASTURTE hasierarekin batera, dagoeneko etxe guztietara iritsi da urteko bigarren erdiko udazkeneko kultur egitaraua. Honen nondik norakoak azaldu eta egitarau berria aurkezteko, prentsurrekoa eskaini zuten herenegun Koro Etxeberria kultura zinegotziak, Agurtzane Aizpuru kultura teknikariak eta Rakel Gonzalez liburutegiko arduradunak.

Bost disziplina

Koro Etxeberriak azaldu zutenaren arabera, aurtengo agenda aldatu egin dute: «lehen, modu kronologikoan eskaintzen ziren jarduerak; orain, disziplina ordenatu dira». Udalaren ustez, «modu logikoa, koherenteagoa» delako.

Bost disziplinatzen banatu dituzte kultur ekintza guztiak: literatura, musika, nahastekak, antzerkia eta arte plastikoak. Horietan artean, literaturaren arloa nabarmendu nahi izan zuen Etxeberriak, bertan «urrats berezia» eman nahi delako udazken honetan.

'Hitz-andana', jardunaldi berria

Hain zuzen, literatura arloan izango direnen inguruan arituzen Rakel Gonzalez liburutegiko arduraduna. «Alde batetik, ohikoak eta errotuak dauden ekintzak izango dira, ipuin

kontaketak eta literatura solasaldiak; eta bestetik, bi jarduerak berri: *Hitz-Andana* jardunaldia eta irakurketa partekatua», azaldu zuen.

Hitz-Andana jardunaldia urriaren 3, 4 eta 11n izango da, eta Gonzalezek onartu zuenez, «Hernani Hitzetan jardunaldiaren hutsunea betetzera dator». Hau da, hitza izango da protagonista, aurrekoan bezalaxe: «hitza kontatua, xuxurlatua, antzetzua, errezitatua...».

Berrikuntza gisa, baita ere, *Hitz-Andana* jardunaldian eskainiko den *Pez Limbo* mikro antzerkia Urumea ikastolako eraikin zaharrean egingo dute.

Bigarren jarduerak berria *Irakurketa Partekatua* izango da: «herriko pertsona ezagunek irakurle gisa daukaten esperientzia partekatuko dute». Aurreneko gonbidatua Kattalin Miner izango da, urriaren 24ean.

Herriko taldeak, protagonista

Musika arloa ere garrantzitsua izango da, udazken honetan. Mikel Urdangarinen kontzertua izan zen seihileko berriaren aurrenekoa, eta beste hiru ere izango dira, Biterin: urriaren 18an, Niko Etxart eta Maialen Errotabere; urriaren 13an, Alboka; eta abenduaren 29an, Bloody Brotherhood, Meltdown eta Liher.

Azken hau izango da berrikuntza: «rockarekin bagenuen zor bat». Gainera, aprobetxatuko da Hernaniko lokaletan entsaiatzen duten taldeak badaudela, horietako bi dira Bloody Brotherhood eta Meltdown.

Disziplina desberdinak, adin ezberdinentzat

Ohi bezala, arte eszenikoen arloa ere presente egongo da udazkeneko egitarauan. Batetik, urteko bigarren antzerki zikloa izango da azaroaren 13tik 15era, hiru antzerkirekin: *Argien hautsa* (Vaiven teatroa, estreinaldia), *Izoztutako haizea bezala* (Tanttaka teatroa), eta *Herederos del Ocaso* (Club Canibal, Madril), hurrenez hurren.

Horrez gain, Nahastekak atalean ere, beste bi ikuskizun ere izango dira. Aurrenekoa, datorren ostegunean: *Microclimate* (sarrerak salgai daude, dagoeneko).

Eta azkenik, haurren antzerkian saiakera berezia egin dela azaldu zuen Aizpuru: «batetik, ahalik eta adin-tarte ezberdinenak kontuan hartzeko; eta bestetik, disziplina desberdinak izan daitezzen».

Arte plastikoak ere, txokoa Udazken honetan ere, txoko berezia izango dute arte plastikoak, hainbat artistak jarriko dute erakusketa, Biterin. ■

■ EUSKARA ARI DU KALE ERRONKA

Plazatik abiatuta gaur, kale-erronka

Mikel Laskurain eta Miren Gojenola aktoreek gidatuko dute, 12:30etan hasita.

BAIETZ Hernanik! erronkaren bueltan, euskerari eusteko gonbidapena herrian zehar zabaltzen jarraitzen du Euskara Ari Du elkarteak. Horretarako, ekintza ugari egin zituen udararen aurretik, eta ondoren, oportunitate patrikak bete jarduerak bueltatu da.

Aurreko asteko antzerkiaren ostean, kale-erronka bota die hernaniarrei oraingo honetan. Eguerdiko 12:30etan hasita izango da, Plazatik abiatuta.

Atzoko alean Zinkoeneatik abiatuko zela zioen arren, ez da hala.

Sorpresaz betetako ekitaldia

Euskara Ari Du elkarteak ez du xehetasun haundirik eman, sorpresa izatea nahi baitu. Badakigu, ordea, Mikel Lasku-

Tarla, Musika Eskola, Iraulio Panttalone Bertso Eskola, eta Hatzi Klinbersen laguntza izango dute.

rain eta Miren Gojenola aktoreek dinamizatuko dutela, eta Ttarla dantza taldearen, Musika Eskolako ikasleen, Iraulio Panttalone Bertso Eskolako ki-deen eta Hatzi Klinbers eskalatazaileen laguntza izango dutela horretarako.

Plazatik abiatuta, Kaxkoan zehar ibiliko dira, eta bukaera, Tilosetako frontoian izango da. ■

■ SAN JOAN KONPARTSA

Dantza ikastaroan apuntatzeko, orain

Aurten ere, euskal dantzetan aritzeko ikastaroa jarriko du martxan San Joan Konpartsak. Irekiak dira, eta apuntatu nahi duenak orain dauka aukera. Horretarako: 695 753 138. ■

■ BERTSO ESKOLA

Bertso eskolan aritu nahi?

Ikasturte honetan Hernaniko Bertso Eskolan aritzeko aukera luzatu dute; datorren ostiralean eman beharko da izena, arratsaldeko 17:00etan, Biteriko sarreran. Bertsotarako gogoia duen edonorentzako irekita dago izenematea. Informazio gehiagorako, idatzi: hernanikobertsoeskola@gmail.com. ■

*Hitzei forma emanez
nork bere erara
gozatzeko Hernanin
nahiko modu bada
Hitz-joko ta txisteen
zalea bazara
animatu ta zatoz
bertso eskolara*

Aspaldiko! 18/19 ikasturtea

Astehenean, irailak 24, hasiko dugu ikasturtea

- ➔ **Astean 2 edo 4 egun**
Taldea batzuetan oraindik badago lekua
Anima zaituz
- ➔ **Auto-ikaskuntza**
Jarri gurekin harremanetan
- ➔ **Diru-laguntza handiak**



HERNANIKO Udal Euskaltegia
Kalea: 101.101.101.101
94.944.331.895
udal@egp@hernani.es

ERRUGBIA

Festarako gogoz hartuko du taldea, Landarek

Kontrario zuzen bat hartuko du Hernanik, etxeko estreinako partiduan: Cisnerosen kontra, gaur arratsaldeko 17:00etan.

SENTSAZIO onekin eta itxura polita erakutsita hasi du liga, Hernanik, Ohorezko Maila. Eta ez da modu txarra hori, etxeko aurreneko partidura iristeko. Gaur jokatu du estreinako Landaren, zale hernaniarren animoen artean, talde trikolorak; eta aurrean, kontrario zuzen bat: Cisneros. Arratsaldeko 17:00etan zelairatuko da Hernani, denboraldiko aurreneko garaipenaren bila.

Irabazi beharreko partidua daukate trikolorrek, beraiek bezala mailari eusteko lehiari aritzea espero den talde baten kontra. Aurreko denboraldian, lasaigo lortu zuen salbazioa talde madrildarrak, eta lasaitasun hori nahi du Hernanik, aurtun. Biak datoz aurreneko partidua galtzetik, biak ere estu, defentsako bonusa lortuta; baina beste kontrario baten kontra galdu zuen Cisnerosek (17-21), La Vilaren kontra etxean.

Iazkoa ez errepikatzea
Partidu garrantzitsua izango da gaurkoa, azterketa serioa, ikus-



Joan den urtean ere, Cisnerosen kontra estreinatu zen Hernani, Landaren.

teko zein mailatan ibili daitekeen bakoitza: galtzea, ez litzateke batere seinale ona izango.

Joan den denboraldian ere, Cisnerosen kontra jokatu zuten Landareko aurrenekoa, ligako estreinako ere izan zena. Eta orduan, gauzak ez ziren espero bezala ateratu: 22-28 galdu zuten

Hernanik. Oraingoan ez dute nahi, puntuek berriro ihes egingo; ez dute nahi iazko istorioa errepikatzerik.

Osasunez behintzat, ondo iritsi da Hernani: Iñaki Otxotorena izango dute baja bakarra trikolorrek, gaur Landaren aurreneko kolpea emateko. ||

PALA

Bigarren garaipenaren bila, hiru bikote

Ondo hasi zuten Gipuzkoako Txapelketa, aurreko asteburuan, palista hernaniarrek. Eta aurreneko garaipena lortuta, bigarrenaren bila ariko dira gaur hiru bikote, 11:00etan kiroldegiko frontoian: Mainer Huizik eta Ariane Arrietak Su-Berri 4ren kontra jokatu dute, nagusien 1go mailan; Intxurreren kontra Garazi Urdangarin eta Ekiñe Balerdi, nagusien bigarren mailan; eta Zarautzen kontra Iñaki Kerejeta eta Aiheko Zubimendi, nagusien bigarren mailan. Amaia Irazustabarrena, bere aldetik, Valentzian izango da asteburuan, Munduko Txapelketa prestatzen, selekzioaren zortzigarren kontzentrazioan. ||

ESKU PELOTA

Hiru partidu gaur, kiroldegikoan

Ostegunean eta ostiralean jokatu dituzte partidu gehienak, esku pelotari hernaniarrek, Gipuzkoako Txapelketaren bigarren jardunaldian. Eta gaur ariko diren hiru bikoteak, Hernanin ariko dira, kiroldegiko frontoian, 16:00etan hasita: aurreneko garaipena bilatuko dute Urta eta Lasak, kadeteen bigarren mailan, Alde Zaharraren kontra; bigarrena eta bolada onarekin jarraitzea Apaolaza eta Albenizek, kadeteen lehenengo mailan, Ilunperen kontra; eta debuta egingo dute bigarren mailako jubenilek, azkenik, Izurunen kontra. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

KIROL TABLA ASTEBURUKO PARTIDUAK

ERRUGBIA				PALA - Eskupeleto Txapelketa			
M.U. Oronoko Maila	Hernani-Oronoko	Larunbat	Gaur 17:00	M.U. Saguetak 1go maila	Huizik eta Ariane Su-Berri 4	Hernani	Gaur 11:00 (I)
M.U. Oronoko Larunbat	Hernani-Ariane Su-Berri 4	Astearte	Gaur 11:00	M.U. Saguetak 2. maila	Urdangarin Garazi/Balerdi	Hernani	Gaur 11:00 (II)
Osasuna (Sub B)	Hernani-Ariane Su-Berri 4	Larunbat	Biak 11:00	M.U. Saguetak 3. maila	Intxurren Garazi/Balerdi	Hernani	Gaur 11:00 (III)
Osasuna (Sub H)	Hernani-Ariane Su-Berri 4	Astearte	Gaur 11:00	ESKU PELOTA - Opatuak Txapelketa			
PELOTA				Jubenilek 1. maila	Alde Zahar/Urta	Hernani	Gaur 16:00 (I)
Ereñu, Euzko Liga	Hernani-Oronoko	Zaragoza	Gaur 16:00	Kadeteen 1go maila	Alde Zahar/Urta	Hernani	Gaur 16:00 (II)
M.U. Oronoko Larunbat	Zaragoza-Hernani	Astearte	Gaur 11:30	Kadeteen 2. maila	Alde Zahar/Urta	Hernani	Gaur 16:00 (III)
M.U. Oronoko Maila	Zaragoza-Hernani	Biak 12:00		ESKU PELOTA - Txapelketa pribatuak			
M.U. Oronoko Larunbat	Zaragoza-Hernani	Zaragoza	Gaur 16:00	Osasuna	Alde Zahar/Urta	Zaragoza	Orain 16:00
M.U. Oronoko Larunbat	Zaragoza-Hernani	Zaragoza	Gaur 12:00	Intxurren	Alde Zahar/Urta	Zaragoza	Orain 16:00
M.U. Oronoko Larunbat	Zaragoza-Hernani	Zaragoza	Gaur 16:00	Osasuna	Alde Zahar/Urta	Zaragoza	Gaur 16:00
M.U. Oronoko Larunbat	Zaragoza-Hernani	Zaragoza	Gaur 16:00	ESKELAK			
M.U. Oronoko Larunbat	Zaragoza-Hernani	Zaragoza	Gaur 16:00	1go partidea	Alde Zahar/Urta	Zaragoza	Gaur 16:00
M.U. Oronoko Larunbat	Zaragoza-Hernani	Zaragoza	Gaur 16:00	2. partidea	Alde Zahar/Urta	Zaragoza	Gaur 16:00
M.U. Oronoko Larunbat	Zaragoza-Hernani	Zaragoza	Gaur 16:00	3. partidea	Alde Zahar/Urta	Zaragoza	Gaur 16:00
M.U. Oronoko Larunbat	Zaragoza-Hernani	Zaragoza	Gaur 16:00	4. partidea	Alde Zahar/Urta	Zaragoza	Gaur 16:00
M.U. Oronoko Larunbat	Zaragoza-Hernani	Zaragoza	Gaur 16:00	WATERPOLOA			
M.U. Oronoko Larunbat	Zaragoza-Hernani	Zaragoza	Gaur 16:00	Hernani-Oronoko			

III. URTEURRENA
Jexux Ugalde Ugalde
2015eko irailaren 21ean hil zen
Gure ondotik joan zinen,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.
ETXEKOAK
Urteurreneko meza, **BIHAR, IGANDEA**, eguerdiko 12:00etan,
SAN JOAN BATAIATZAILEA parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.
Hernanin, 2018ko irailaren 22an

XVI. URTEURRENA
Miguel Larreta Amondarain
2002ko irailaren 24an hil zen
Miguel, 16 urte joan zirela, zu gure arteak.
Orain begira zaudu, zeru edemetik.
Araitasuna zendun guztien gainetik.
Mizu handi bat denon partetik.
Urteurreneko meza, **BIHAR, IGANDEA**, goizeko 10:00etan,
Ereñotzuko **SAN ANTONIO** parroki elizan.
Aldez aurretik, mila esker.

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20 www.funerariaorbegozo.com

- * Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin
- * Beilatokiak
- * Errausketak
- * Lekualdatzeak
- * Eskelak, koroak...

Zentrala: Latsunbe 7, Hernani

ORBEGOZO
TANATORIO - BEILATOKI

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

Tontorrez tontor

■ Mendiriz Mendiko kideek hilabetean egingo duten irteera baten inguruko xehetasunez osatutako atala.

Aitzuloko zuloa bisitatzeko, aukera paregabea



MENDIRIZ MENDI

GIPUZKOAN geratuko da, oraingo honetan, Mendiriz Mendi elkarteak; Araotz-Orkatzategi-Leintz-Gatzategatik egingo dute ibilbidea irailaren 30ean.

Ibilbidea Araotz herritik hasiko dute, Lope de Agirre konkistatzailea jaio zen herri txikitik. Lope de Agirre gaztea zela, Sevillan zegoen eta Peru eta bertako aberastasunaren berri izan zuen; hori ikusita, fortuna egiteko asmoz hara joatea erabaki zuen.

1536 urte inguruan iritsi zen Lope de Agirre Perura, eta hainbat tokiren konkistan eta kolonizazioan parte hartu zuen. Guda horietan, bere krudelkeriagatik eta bortxakeriagatik nabarmendu zen. Bere gizonak *Lope el Loco* edo *Lope el Tirano* goitizenarekin ezagutzen zuten. Kolonizatzaileen artean eman ziren hainbat gatazka eta liskarretan parte hartu zuen, baina Eldorado altxorraren bilaketan parte hartzeagatik ezagutzen da gehien bat. Felipe II erregearen kontra altxatzeagatik erail zuten Venezuelan.

Aitzuloko zuloa, bisitan zehar Ibilbidean Aitzulo bisitatuko da, harkaitzean higadurak egindako zulo erraldoi eta ikusgarria.



Aitzuloko zuloa.

Leku magikoa da, dudarik gabe. Sarrera atzean dauka, eta bertara hurbildu arte ez gara oharitzen bertan dagoenik. Barrura sartzen garen heinean, pixkanaka irekitzen dijoan kobazulo moduko tunel haundia da eta bat-batean, aurrez aurre, begi haundi baten forma duen zuloa agertzen da.

Horrez gain, sabaian zulo haundi bat dauka. 'Leihoaren' ertzeraz erraz hurbil daiteke, eta bertatik, bistak ikusgarriak dira. Ausartenez, harkaitzetik behera eginez, beste barrunbe txiki batera jaisteko aukera dute. Bertan, batzuk Aitzulo-txiki izenarekin izendatzen duten beste begi txiki bat dago. Ibilbidea Santa Kurutz baselizaren albotik pasatzen da. Baseliza eta inguruko eremuak oso politak dira, eta eraikinak forma errektangeluarra dauka. Teilatuak bi isuri ditu eta has-

tialean burdinezko gurutzera dauka. Barruan gurutzatuta dagoen Kristoren margoa duen aldare xumea bat du. Baseliza XIX. mendearen hasiera aldera eraiki zen, baina bertan ipini zen irudia zaharragoa da. Baseliza 1970. urtean berritu zen. Urtean bi meza ospatzen dira bertan: aurrenekoa, maiatzak 3an eta bigarrena, uztailean, Jakue egunean.

Ibilbidearen deskribapena

Araotz herrian sartu baino lehen hasten da bidea. Horretarako, porlanezko pista eta errepide tarte motz batzuetatik baxerri batzuetara igo behar da. Hauek pasatzerakoan, eskuinean geratzen den bide zabal batetik jo behar da. Bideak pixkanaka gora egiten du; baina basotxo bat igaro ondoren, aldapa zertxobait tentetu egiten da. Aurrerago, bideak pinudi bat

inguratzen du bere eskubitik eta txabola batera eramaten gaitu. Bertan, jaiotzen den bidezidorra zuzen jarraitu eta igoera labur batean Aitzuloko sarre-rara iristen da.

Aitzuloko begia ikusi ondoren, bidezidorrera itzuli eta eskuinera eginez igotzen jarraitu behar da. Bideak Aitzugaineko ur-biltegiara hurbilduko gaitu. Orkatzategira igotzeko 150 metro inguruko desnibela geratuko da, baina lasai hartuta arazorik gabe igotzen da. Hala ere, norbaitek azken igoera hau ez badu egin nahi, badago bide lau batetik Orkatzategi eta Ametzuetan dagoen lepora hurbiltzeko aukera.

Orkatzategira igotzeko erabakia hartzen dutenak, ordea, ez dira damutuko. Bertatik, Urkulu urtegi aldera eta Udalaitez eta Anboto aldera dauden bistak ikusgarriak dira.

Paisaiatz gozatu ondoren, zelai batetik Orkatzategi eta Ametzuetan dagoen lepora dagoen bidegurutzera jaitsiko gara. Jaitsiera leuna da. Lepoaren inguruetan Urtaopotu-luetako trikuharria eta Linatzako tumulua aurkitzen dira. Bertatik ere gasbidea pasatzen da. Bidegurutzera aurkituko dugun pistari jarraitu behar zaio Santa Kurutz baselizara iritsi arte. Tarte honek emeki

ARAOTZ - ORKATZATEGI (869 m) - LEINTZ-GATZAGA

- **Non kokatzen da:** Oñati eta Eskoriatzaren artean.
- **Luzera:** 18 km
- **Denbora:** 6-7 ordu
- **Desnibela:** 900 m inguru gorantz eta beste horrenbeste, beherantz.
- **Zailtasuna:** Zailtasun berezirik gabekoa.
- **Beharrezko materiala:** Mendiko material arrunta.
- **Mendiriz Mendik** irailaren 30ean egingo du irteera hau.

behera egiten du.

Baseliza bisitatu ondoren bigarrena jarraituko diogu. Pistak Santa Kurutz gaina eskuinetik inguratzen du, eta Arbe errekek osatzen duen bailarara jaisten digu. Bertatik, bigarrena jarraituz, Elorretako lepora igo behar da. Lepoa igarotzerakoan norabidez aldatu eta ezkerrean egin behar da. Ia altuera galdu gabe Pagobedeinkatutako lepora jaitsiko gara. Bertan dagoen bidegurutzera mendebaldera jozten duen pista hartu behar da. Bide horretik, Makatzgain gailurra bere eskuinetik inguratuz, izen bereko lepora hurbildu behar da. Hemendik, ibilbidea amaitu arte, bideak behera egiten du. Ordubetik inguruko jaitsierak ibilbidearen amaieran utziko gaitu. ■

egin zotz!

ASTIGARRAGA eta HERNANIN

Irailetik abendura kalitatezko sagardoa bertako produktuz lagundua

2€ Euskal sagardoa + euskal pintxo

<p>IRAILAK 20 Euskal Pintxo Pote Gidatua (Hernani)</p> <p>IRAILAK 27 Euskal Pintxo Pote Gidatua (Astigarraga)</p> <p>IRAILAK 30 Sagar Uzta (Astigarraga)</p> <p>URRIAK 4 Euskal Pintxo Potea (Hernani eta Astigarraga)</p> <p>URRIAK 5 AFARI MARIDATUA Tripontzi Jatetxean</p> <p>URRIAK 8-21 BAKAILAO ASTEA (Hernani)</p> <p>URRIAK 26 AFARI MARIDATUA Ipintza Sagardotegian</p> <p>AZAROAK 1 Euskal Pintxo Potea (Hernani) Euskal Pintxo Pote Gidatua (Astigarraga)</p>	<p>AZAROAK 9 AFARI MARIDATUA Ikatza Tabernan</p> <p>AZAROAK 15 AFARI MARIDATUA Errioguarda Jatetxean</p> <p>ABENDUAK 6 Euskal Pintxo Potea (Astigarraga) Euskal Pintxo Pote Gidatua (Hernani)</p> <p>ABENDUAK 10 Afarari gidatua (Astigarraga)</p> <p>ABENDUAK 11 Afarari gidatua (Hernani)</p> <p>ABENDUAK 14 Egin Zotz! bukaerako festa (Astigarraga)</p> <p>ABENDUAK 15 Egin Zotz! bukaerako festa (Hernani)</p>
---	--

■ XXI. IGARTZA SARIA ERIKA ELIZARI SALVADOR

«Proiektuak aukera ematen du inprobisatzeko»

Otsaila partean argitaratuko du Erika Elizari Salvador hernaniarrak 'Zendabalitz', bere aurreneko eleberria; «maila ematen badut!», dio. Dagoeneko eman du, ordea, XXI. Igartza Saria irabazi baitu.

IGARTZA Saria Hernanin tokatu da, hirugarren aldiz. Erika Elizari Salvadorrek jaso du, *Zendabalitz* eleberri proiektuarekin, Beasaingo Udalak CAF enpresak eta Elkar argitaletxeak antolatzen duten idazle gazteentzako lehiaketa honen 21garren edizioa. Aurretik Uxue Apaolazak (2009) eta Kattalin Minerrek (2015) irabazi zuten.

Sei hilabeteko epea dauka Elizari aurkeztutako eleberri proiektua bukatzeko; otsaila partean argitaratzea aurreikusten da.

Ikus-entzunezkoen mundutik zatoz. Nolatan aurkeztu zara literatur sariketa batean?

Aspaldi neukan gogo, aurkezteko. Haurdun egon naizenean, inoiz baino denbora gehiago izan dut idazteko. Beste gauza asko debekatuta nituen, baina idatzi nezakeen. Irakurri ditut aurreko Igartza saridunak, eta aurreko urtean aurkezteko ahalgina egin nuen beste proiektu batekin, baina ez nintzen iritsi.

Nola eman dizute berria? Errezelarik bazenuen, edo ahaztuta zinen?

Banekien irailan ematen zela jakitera. Baina ez nintzen gogoratzen, ez nuen espero. Gainera, beste kontu batzuegatik hainbat telefono dei jasotzen ari naiz, eta horrelako zerbait espero nuen. Xabier Mendigurenek deitu zidanean ez nengoen nere etxean, eta kobertura ezin harrapatu ibili nintzen, entzuten ari nintzena entzun bezala ahazten zitzaidala!

Idatzi izan duzu inoiz gidoirik ikus-entzunezkoetarako? Oso desberdina izan da?

Film laburren batean, oso era amateurrean prestatu izan di-



Erika Elizari hernaniarrak irabazi du XXI. Igartza Saria, 'Zendabalitz' eleberri proiektuarekin.

«Kosta egiten zait jendeak nik idatzitakoa irakurtzea onartzea. Kontraesana da. Baina ez dakit kudeatzen.

tut gidoiak. Baina honek askatasun gehiago ematen du, onerako eta txarrerako. Ikus-entzunezkoetan mugak daukazazu, badakizulako gero imajinatu duzun guztia ezin dela egin, edo aurrekontuagatik oso kutrea geratuko dela. Baina honek txarrerako ere badu, mozten jakin behar duzula! Bestalde, ikus-entzunezkoetan lan-taldearen beharra dauka-

zu, eta nire egoeran, orain ez nago besteekin konprometitzeko. Horrek ere izutzen nau, noski. Bakarrik nago prozesuan. Ardura guztia zurea da.

Laginen bat aurkeztu behar da Igartza Sarietan. Bertsolarien moduan, bukaera pentsatuta aurkeztu zinen?

Hiru orrialdeko laburpen bat aurkeztu behar zen. Egitura, zein estilo erabiliko duzun... azaltzen duzu bertan. Eta gero lagina, 15 bat orrialdekoa. Izan daiteke, hasierakoa, erdikoa, bukaerakoa... Baina segidakoa. Ekainerako entregatu behar zen, eta orain, otsailan argitaratuko da, maila ematen badut! Bukaera ez neukan garbi. Baina prentsaurrekora bidean ideia bat sortu zitzaidan, eta ez dut deskartatu. Baina proiektuak

aukera ematen du inprobisatzeko. Ez da itxia, eta nik aurkeztu nuen lagina hasierakoa da.

Zer da, 'Zendabalitz'?

Zen-da-balitz. Hitz-joko bat da, iragana eta etorkizunari begira. Adierazten du nola kezkatzen garen izan zenagatik edo daitekeenagatik. Eta ez naiz inoiz izan *carpe diem* zalea, baina agian, garrantzia handiegia ematen diegu beste horiei. Hala ere, ez dut esan nahi iragana eta etorkizunean pentsatzea txarra denik!

Matxura baten eraginez hegazkinean ez atzera eta ez aurrera geratuko dira protagonistak, eta turbulenzia eragingo dizkie gertaerak, barruan...

Pilotuak esango die arazoren

bat badagoela, baina egiaz ez dakite zer gertatzen den. Horrek piztuko ditu turbulenzia, norberaren iraganarekin edo etorkizunarekin lotuta. Kezka izango dute arazo teknikoagatik, baina hori detonantea izango da, aitzakia, beste kezkentzako.

Zuri ere sortuko zaizkizu orain turbulenzia, barne kezka, proiektua bukatzeko lanean hasita?

Bai, beldurra badut, berria delako. Ikasi egin beharko dut. Gainera, ez zait gustatzen, edo kosta egiten zait jendeak nik idatzitakoa irakurtzea onartzea. Kontraesana da. Baina ez dakit kudeatzen. Bikoteari erakutsi nion lagina, eta aurreneko orria irakurtzen ari zela dagoeneko haserretu nintzen, itzali nion ordenagailua... Besteek irakurtzea onartzen ikasi beharra daukat.

Horren atzean egon daiteke irakurleak zure istorioetan zu identifikatzeko beldurra?

Zazpi pertsonaia oso desberdin sortu ditut genero, adin eta ogibidearen aldetik. Identifikazio zuzenik ez dago. Baina giza-jokabideei buruzko eleberri bat da. Ikusi edo bizi izan ditudan egoerak badaude, nahiz eta oso esajeratuta, asko dramatizatu. Autobiografikotik izan dezake zerbait, eta ingurukoek ere identifikatuko dituzte pasarte batzuk, baina dena esajeratua dago. Haurdun bat ere badago, adibidez, baina ez naiz ni!

Batzuk ogia besapean jaiotzen omen dira, eta besteak, amarentzako sariarekin! Bi erronkak uztartzeak beldurtzen zaitu?

Bi gauza berri dira, une berean. Baina une aproposan. Orain denbora hartu dezaket idazteko. Era berean, baita umearekin egoteko ere. Baina moldatuko gara!

Ingurukoek zer esan dizute? Denek irakurri nahi dizute...

Sorpresa izan da. Sekula ez dut idatzi era honetan. Beste batzuei nahikoa txapa eman diet idatzi bitartean... Baina lagina ez du inork ikusi. Hala ere, horrelako sariak, egia esan, ematen dute konfiantza. Idaztean pentsatzen duzu erotuta zaudela, eta orain uste dut merezi duela jarraitzea. Orain errazago utziko dut, irakurtzen. ■

■ DONOSTIAKO ZINEMALDIA

Donostia izarrez beteko da, Zinemaldiaren 66garren edizioan

Hollywoodeko makina bat aktore eta zuzendari ekarriko ditu hirira, Zinemaldiaren aurtengo edizioak. Hirokazu Kore-eda zuzendariak eta Danny DeVito eta Judi Dench aktoreek jasoko dute Donostia Saria.



AMAIA GARCIA GONZALEZ

DONOSTIAKO Zinemaldiaren 66. edizioa atzo hasi zen, *El amor menos pensado* pelikula argentinarrarekin. Aurtengo edizioak Hollywoodeko aktore eta zuzendariz beteko du Donostia. Besteak beste, Ryan Gosling, Lily-Rose Deep edota Bradley Cooper aktoreak egongo dira datozen egunetan Donostiako aretoetan. Horrez gain, Hirokazu Kore-eda zuzendari japoniarrak, Danny DeVito aktore estatubatuarrak eta Judi Dench aktore ingelesak, Donostia saria jasoko dute.

Aurten, Sail Ofizialean ez da egongo euskaraz egindako pelikularik, baina euskal zinemak garrantzia handia izango du, *Oreina*, *Dantza*, *Margolaria* edota *Black is beltza* pelikulak aurkeztuko direlako. Film hauek, Euskal Zinemaren Irizar Saria jasotzeko aukera izango dute; eta Ramon Agirre aktore donostiarrak Zinemira saria jasoko du, Euskal Zinemaren galan.

Gainera, Donostiako zine aretoak film oso interesgarriak beteko dira, eta mota askotako filmak ikusteko aukera izango da egun hauetan.

El reino
Irailak 22 eta 23

Rodrigo Sorogoyen zinegilearen pelikula berriak *thriller* politiko bat ekarriko digu Sail Ofizialera. Manuel ustelkeria kasu batean sartuta dago, eta bere alderdi politikoaren babesik gabe geratu da. Protagonista bere egoerari aurre egiten ikusiko dugu filmean. Aktore protagonista Antonio de la Torre da, eta berarekin Barbara Lennie aktorea ere ikusiko dugu. Ez da lehenengo aldia, Sorogo-



'El reino' izeneko thriller politikoa aurkeztuko du Rodrigo Sorogoyen zinegileak, Zinemaldiko Sail Ofizialean. Argazkia: Julio Vergne

yen Zinemaldiko sail ofizialean dagoena: duela bi urte *Que diós nos perdona* filma aurkeztu zuen, eta gidoi onenaren saria irabazi zuen.

Quién te cantará
Irailak 25, 26, 27 eta 28

Carlos Vermut zuzendariak, duela lau urte, hitzik gabe utzi zuen Zinemaldiko kritika eta publikoa, *Magical Girl* lanarekin. Aurten, *Quién te cantará* aurkeztuko du Sail Ofizialean, eta berriro ere Urrezko Maskorra irabazteko aukera izango du. Oraingoan, Vermutek abeslari baten memoria galtzearen istorioa ekarriko du lehiaketara. Torontoko zinemaldian ere aurkeztu du pelikula, eta kritika oso onak jaso ditu jada. Ikusteke dago 2014 urtean lortutakoa errepikatzeak aukera izango duen Vermutek aurten.

Roma
Irailak 26, 27, 28 eta 29

Alfonso Cuarón zuzendari mexikarrak Venezian aurkeztu berri du film hau, eta Urrezko Lehoa irabazi du, Mexiko DFko

Roma auzoko emakumeen bizitza erakusten duen filmarekin. Perlas sailean ikusiko den film honek, omenaldi bat egin nahi die zuzendari mexikarra zaindu zuten emakumeei. Netflixek ekoiztutako filma da, eta agian, Zinemaldian izango da aukera bakarretarikoa, pantaila handian ikusteko.

Mudar la piel
Irailak 22, 23 eta 24

Zinemira saila ireki zuen atzo, Ana Schulz zuzendariaren dokumentalak. Juan Gutierrez, Schulzen aita, ETaren eta Espainiar gobernuaren arteko bitartekaria izan zen 80 eta 90eko hamarkadetan. Garai horietan, lagun on bat egin zuen, Roberto Flórez. Juanek ez zekiena zen, Roberto CNiko kide bat zela, eta urte batzuen ostean, traizio handi bat egingo ziola Robertok Juani. Traizio horrek eragindakoak eta euskal gatazkaz hausnartuko du Ana Schulzek, bere gurasoekin. Horrez gain, prozesu zinematografikoaren garrantzia erakusten du zuzendariak, bere lehen lan luzean.

Oreina - Irailak 25, 26 eta 27

Zuzendari Berrien sailean aurkeztuko du Koldo Almandoz zuzendari donostiarrak, bere azken pelikula. Aurreko urteetan, bere azken lanak aurkeztu ditu Zinemaldian: 2017 urtean *Plagan* laburmetraia aurkeztu zuen, eta 2016an *Sipo Phantasma* luzemetraia. *Oreina* pelikulak Khalilen egunerokora gerturatuko gaitu. Khalil periferian bizi den gazte bat da, eta ahal duen bezala bizi da, ibaiaren ertzean agure batekin. Padura eta mareak ezinbestekoak izango dira maitasun, desamodio, laguntasun eta mendeku istorio honetan.

Las herederas
Irailak 22 eta 23

Paraguaytik dator, Horizontes Latinos saila zabaldu duen pelikula. Marcelo Martinessi zuzendariaren lana Paraguayko akademiak aukeratu du, Oscar sariatik atzerriko hizkuntzan egindako pelikularen sarian hautagai izan dadin. Gainera, Sebastiane Latino saria jaso zuen atzo, Chela eta Chiquita-

ren istorioa kontatzen duen pelikulak. Bi emakumeak ez daude bere bizitzako momentu onenean. Chiquita iruzur egiteagatik salatu dute, eta Chelak bere bizitza eroso utzi behar du taxista moduan lan egiteko. Beraien arteko erlazioa ikusiko da film honetan, eta Paraguayko errealitatera gerturatzeak aukera izango dugu.

Shoplifters
Irailak 23, 24, 25 eta 26

Aurtengo Donostia Saria jasoko dutenen artean dago, Hirokazu Kore-eda zuzendari japoniarra. Bere lana ia urtero ikusi daiteke Zinemaldian, eta horregatik jasoko du saria. Bere azken lanak, Urrezko Palma irabazi zuen Canneseko jaialdian. Bihar, Donostia Saria jaso ostean, filma ikusteko aukera egongo da, eta baita datozen egunetan ere. Irailaren 16an, filmeko protagonista bat zendu zen. Kirin Kiki aktoreak hainbat pelikula egin ditu Kore-edarekin, eta 75 urterekin kantzerraren ondorioz hil da. Beraz, pelikula hau ikusteko hainbat arrazoi daude. ■

■ HERNANIKO BERRIAK ELKARTEA MAIDER ALKORTA

«Ez gara konturatzen denda txikiak galtzeak zer kalte daukan gizartean»

Ilun, hilik agertu zen Kaxkoa iaz, dendek eskaparateak plastiko beltzekin tapatu zituztenean. Atzo, kontrakoa erakutsi nahi izan zuten Berriak elkartekoek; biziberritu egiten dutela herria, denda txikiek.

HERNANIKO Merkatari eta Ostalarien Elkarteko, hau da, Berriak elkarteko kidea da, Maider Alkorta. Kale Nagusian dauka, umeentzako arropa saltzen duen Hiru denda.

Lehengo urtean plastiko beltzen kanpainarekin «gaiaren inguruan hitz egitea lortu» zela dio. «Jendeari ez zaio gustatzen dena beltza ikustea». Baina beste gauza bat da, bere ustez, «gero, konturatzea gure esku dagoela...».

«Merkea den horretan bakarrik pentsatzen dugu»
Hernanik Donostia gertu izatea, eta aldi berean merkatal gune haundiak inguruan izatea, «onerako eta txarrerako»

dela uste du Alkortak. «Marka haundi horiek tiburoiak dira guretzako, baina autokritika ere egin behar dugu; denok daukagu zer ikasi».

Alkortaren ustez, hain zuzen, horiek gertu edukitzeak ematen du aukera ikusteko «zer egiten den. Ez guk ere berdina egiteko, baina bai aldaketak zein diren ikusteko. Haiek markatzen dute moda. Dendariok ere mugitu beharra daukagu». Baina, aldi berean, «min egiten» dutela nabarmentzen du. «Ez gara konturatzen denda txikiak galtzeak zer kalte daukan gizartean. Korrika eta estresak jota bizi gara. Bizilagunarekin ere ez dugu hitz egiten. Kotxean joaten gara lanera eta kotxean egiten

«Marka haundi horiek tiburoiak dira guretzako, baina autokritika ere egin behar dugu; denok daukagu zer ikasi»

ditugu erosketak. Etxera joan, eta interneten sartzen gara. Denda txikiak galduta, herria bukatzen da».

Baina hori jakinda ere, Alkortaren esanetan «ez gara konturatzen gure atzetik zer datorren. Epe ertainean ez badira gauzak aldatzen, honek guztiak eragina izango du. Baina, hala ere, merkea den horretan bakarrik pentsatzen dugu. Atzetik datozenek ikusiko dute».

Gertutasuna, kalitatea, konfiantza, aholkua
«Tiburoi» haundi horien «prezio merkeen atzean zer dagoen» pentsatu behar genukeela



Hernaniko Hiru, umeentzako arropa dendako jabea da Maider Alkorta.

uste du Alkortak. «Horretan ezin dugu lehiatu».

Baina bai beste hainbat arlotan. «Jendea nola tratatzen dugun, gertutasuna, kalitate onena eta horren prezio ona, ematen dugun goxotasuna eta aholkuak... Horretaz ez gara konturatzen, galdu arte. Gero, larunbat arratsaldetan dendak itxita daudela-eta, tristura sumatzen omen da. Baina ez da inor ibiltzen!». Horrek guztiak erakusten du, Alkortaren

uste, «gure komertzioei fide-lak izatea» merezi duela.

Dena den, guztia ez dago dendari eta erosleen esku bakarrik. «Udaletxeak ere badu zeregina. Ezin du herria hiltzen utzi. Orain konturatu dira».

Plastiko beltzekin kontzientzia sortzen saiatu ziren iaz, eta atzo, kontrakoa; dendek ematen duten bizia nabarmendu nahi izan zuten. «Denok egin behar dugu zerbait. Gizarte arazoa da». ■

■ ASTIGARRAGAKO ASTIKO ELKARTEA ALFREDO RUIZ

«Gaurko erosketa ohituren aurka borrokatzea zaila da»

Hernaniko kaleko festarekin kontrastean, beltzez tapatuta ageri dira Astigarragako komertzioak, denda txikiak galtzeak dakarkiena agerian uzteko.

ASTIKO, Astigarragako Merkatarien Elkarteak bat egin du Buruntzaldeako dendari txikien kanpainarekin, eta lau egunez, eskaparateak beltzez tapatuta, triste eta hilik izango dituzte, «jendea kontzientziazteko, zer litzatekeen herria, komertzio gabe», azaldu du Pastain Irudi Zerbitzuak dendako Alfredo Ruizek.

Buruntzaldea osoko komertzioek egin dute bat kanpainarekin; Hernanin, iaz egin zuten. «Ez da Astigarragako arazoa.



Astigarragako Pastain Irudi Zerbitzuak dendako jabea da Alfredo Ruiz argazkilaria.

Herri guztietan gertatzen da. Gaurko erosketa ohituren aurka borrokatzea oso zaila da. Merkatalgune haundietara joaten da jendea; askotan, eguerditan. Zer egin behar dugu, eguerdi edo asteburutan ireki?».

«Itsasoari ateak jartzen saiatzea bezala da»

Dena den, Ruizek argi dauka arazoa ez direla merkatalgune haundiak. «Haien kontra borrokatzea akatsa da. Beti egongo dira. Itsasoari ateak jartzen

«Eskatu baino, eskaintzearen aldekoa naiz. Aurrena zerbitzu ona eman behar dugu, kontuan hartu gaitzaten gu»

saiatzea bezala da. Nik ez dut haiekin konparatu nahi edo gauza bera eman nahi. Nik zerbitzu pertsonalizatua ematen dut. Prezioan ezin dugu lehiatu, baina gure armak dira gertutasuna, tratua eta zerbitzua».

Era berean, dena ez da txarra. «Herriarekin harremana mantentzeko, ateak zabalik dauzkaten denda. Baina internet bidez ere egiten dut lan, nere publiko objektibo kanpoan ere badagoelako».

Baina herrian giroa sortzearen garrantzia azpimarratzen du. «Herrian jarduerak sortuz lortzen da eragina. Etorrizuna

ez da xamurra. Baina erosleei eskatu baino, eskaintzearen aldekoa naiz. Aurrena zerbitzu ona eman behar dugu, kontuan hartu gaitzaten gu, haundien artean ere. Autokritika hori egin behar dugu merkatari txikiok».

«Merkatari bezala, sinestu behar dugu gure aukeretan»

Giroa sortzeko taldean aritzearen garrantzia ere azpimarratu du Ruizek. «Merkatari bezala, sinestu behar dugu gure aukeretan. Elkartuta, errazagoa da indarra egin eta gauzak lortzea». Horretan, udal teknikaria eta Siadeco enpresa kudeatzailearen laguntza eskertu ditu.

«Askok ez daukate denbora edo gogorik. Baina kide gehiago izatea bera hobea da. Gauzak egitea ona da konturatzeko herrian badagoela komertzioen elkarte, eta komertzioek herri dinamikan parte hartzea interesgarria da. Bestela, gero eta lokal itxi gehiago egongo da, eta tristea da». ■

■ BETERRIKO MERKATARITZA BULEGOA

«Herri triste eta hilaren irudia eman nahi dugu; horrelakoa izango litzateke komertziorik gabe»

Sentsibilizazio kanpaina jarri dute martxan, Beterri eskualdeko merkataritzaren egoera «kezkgarriaz» ohartarazteko. Komertzio txikien %75ak baino gehiagok egin du bat: «txikiak gara, baina elkartzen bagara, indar haundia izan dezakegu».

«EZ dugu inoren kontra egin nahi; bakarrik nahi dugu lortu herritarrei pentsaraztea», zioen atzo Marta Zulaicak, Beterriko Merkataritza Bulegoko ardura-dunak. Eta herritarren hausnarketa hori pizteko, plastiko beltzak erabili dituzte: komertzioen erakusleihoetan jarri dituzte; joan den urtean Hernanin egin zutena, eskualdeko beste herrietan egin dute orain, hain justu. «Herri triste eta hilaren irudia eman nahi dugu; horrelakoa izango litzateke, komertzio txikirik gabeko herria», azaldu zuen Zulaicak. Andoainen aurkeztu zuten kanpaina, Urigain kultur etxean, eskualdeko udal ordezkari, merkataria eta teknikariak.

«Gogorra da zure dendako erakusleihoa beltzez estaltzea, baina egoera oso zaila da. Erakutsi nahi dugu herri biziak nahi ditugula. Herritarra libre da nonahi erosteko, baina erakutsi nahi dugu herrian bertan erostea ere aukera bat dela; eta askotan, ez okerrena, onena baizik», nabarmendu zuen Siadecoko Juanjo Allurrek.

Komertzioen %75a baino gehiago, bat eginda

Hortaz, Beterri eskualdeko merkataritzaren egoera «kezkgarriaz» ohartarazi nahi dituzte herritarrek, sentsibilizazio kanpaina honen bitartez. Hernanin, Astigarragak, Andoainek,

Usurbilek eta Lasarte-Oriak egin dute bat; eta partehartze haundia izan du, merkatarien aldetik: «komertzio txikien %75ak baino gehiagok egin du bat», azaldu zuen Allurrek. Hernanin, 109 komertzio atera ziren kalera atzo, Hernaniko Merkataritza Festa ospatzeko; eta Astigarragan, 50 establezimenduk jarri dituzte plastiko beltzak, beraien erakusleihoetan.

Elkarlanean aritzearen ideia horrekin bat egin zuten kanpainaren aurkezpenera bertaratu zirenek: «txikiak gara, baina elkartzen bagara, indar haundia izan dezakegu. Oso garrantzitsua da bat egitea», adierazi zuen Maugi Rojok, Hernaniko Ikusi-Makusi dendakoak.

Tristuraren ondoren, alaitasuna eta bizia

Ostegunean hasi ziren dagoeneko, Astigarraga, Andoain eta Usurbilgo komertzioetako erakusleihoak plastiko beltzekin estaltzen; horrela egongo dira, bihar arte. Tristurak eta herri hilaren irudiak, ordea, alaitasunari eta herri biziari egingo dio bidea, asteartean. Irailaren 24tik aurrera, hiru herri horietan eta Lasarte-Orian, «dendak koloretako globoekin apainduko ditugu, eta kalera aterako gara, herriari poza eta bizitza ekartzeko», aurreratu zuten.

Alaitasun eta bizitasun hori bera da, Hernaniko komertzio-



Eskualdeko udal ordezkari, merkataria eta teknikariak, Andoaingo udaletxearen aurrean. Plastiko beltza jarri zuten han ere.

ek azaleratu zutena atzo, Merkataritza Festarekin. Egun osoko ospakizuna egin zuten, komertzio txikiak herriari aporteratzen dion guztia aldarrikatzeko, eta Berriak elkartearen 25garren urteurrena ospatzeko.

«Komertzio txikiek ez dituzte babes hitzak behar; babes neurriak behar dituzte»

Merkataritzaren arazoak, erakunde partehartzea ere eskatzen duela nabarmendu zuen Jon Zulueta Andoaingo zinegotziak: «ohituta daude gure babes hitzak entzuten, baina ez da

hori behar dutena. Babes neurriak behar dituzte, Udaletatik hasi, Aldunditik segi eta Eusko Jaurlaritzaraino».

Udala eta komertzioen elkarlana nabarmendu zuen Luis Intxauspe Hernaniko alkateak ere, eta horretarako, adierazi zuen «merkataria elkarrekin indarra hartzea» ezinbestekoa dela: «animatu daitezela komertzio gehiago, elkarteko bazkide izatera. Kanpaina hau bezalako ekintza txikiek, eragina dute herria biziberritzeko bide horretan», nabarmendu zuen.

Zorione Etxezarraga Astiga-

rragako alkateak, bere aldetik, adierazi zuen «apustu serioa» egin dutela herriko merkataritza indartzeko, eta «sakontasunez» sartu nahi dutela erronka horretan. Nabarmendu zituen Astiko merkataria eta ostalari elkartearen biziberritzea, eta Udalean merkataritzaren arloko teknikari bat hartu izana.

Jaione Irazu teknikariak ere hartu zuen hitza, kanpainaren aurkezpenera: «ostegunean, poza ematen zuen kaletik ibili eta ikustea merkataria guztiak lanean, erakusleihoak beltzez estaltzen elkarrekin». ■

ASTIGARRAGAN BIZI ETA EROSI

Balio handia dauka herriko denda txikietan erosteak!



Alfabetoaren Oinarrizko Letrak: A, B, C, D, E, F, G, H, I, J, K, L, M, N, O, P, Q, R, S, T, U, V, W, X, Y, Z



I DUNAK ETA UDALA SAGARDOETXEA

Eraikina mantendu eta herriko toki gehiago tematizatzea, proposamena

Sagardoetxearen kokalekuari buruzko prozesua burututa, Dunak taldeak ondorioztatu du egokiena izan daitekeela eraikina bere tokian mantendu, eta herriko puntu gehiagotan jartzea sagardoaren kulturarekin lotutako errepresentazio eta bisita guneak.

PROZESUA burutu dute azkeneko hilabeteotan, Dunak taldearen eskutik, Sagardoetxearen kokapen egokiena bilatzeko asmoz. Eta prozesuaren nondik norakoan zein ondorioen berri eman zuten ostegunean, Dunak taldeko Koldo Telleriak eta Ana Almandozek.

Horretarako, apiriletik irailera bitarte, bilerak egin dituzte batetik, herriko sagardogile, eragile, politikari eta teknikariek; eta bestetik, azterketa teknikoak ere egin dute.

Prozesuaren azkeneko ondorioa izan da, egokiena izan daitekeela Sagardoetxearen eraikina bera ez tokialdatzea, baina herriko puntu gehiagotan jartzea sagardoaren kulturarekin lotutako errepresentazio eta bisita guneak. Sagardoetxearen soilik pentsatu beharrean, sagardo herria kontzeptua lantzea, alegia.

Herriko bost gune, aztertuta
Aukera hori, hala ere, ez zegoen hasiera batean planteatutakoen artean. Lau kokaleku berri proposatuz abiatu zuten prozesua: Portutxo ingurua, hilerri ingurua, Errekalde in-

guru eta Sagardi gaina. Aurreneko bileretan jasotakoarekin, ordea, Errekaldeko aukera baztertu zuten, eta beste bi gehitu ziren: Sagardoetxearen kokalekua bera (eraikina berrera-bilita edo lorategian eraikin berri bat eginda); edota Ibai parkea. Beraz, bost izan dira azkenean, landu diren tokiak.

Eta lanketa hori eginda, oraingo kokalekua ikusi dute ondoen; baina beste tokiek eskaintzen dituzten aukerak ere aprobetxatzea proposatu dute: «kokapen bakoitzak ezaguri zehatzak ditu, eta aukera ezberdinak eskaintzen ditu. Sagardi gaina aberatsa da ingurugiro aldetik, eta egungo sagardiaren gaineko basoan, kupelak egiteko zuhaitzak daude; ibilbide bat egin liteke bertan. Hilerri ingurutik, berriz, Astigarragako sagardoaren paisaia osoa ikusi daiteke; toki ederra behatoki bat jartzeko. Portutxon, bidegorriaren eta ibaiaren gertutasuna, errepideetatik duen ikusgarritasuna eta sagardotegien gertutasuna aprobetxatu daitezke. Eta Ibai parkean jarri daiteke, adibidez, sagardoaren ibai bi-



Dunak taldeko kideak, prozesuaren nondik norakoak azaltzen.

dezko garraioa islatzen duen informazioa, eta azertu daiteke lotura bat Donostiarekin Urumean zehar», azaldu dute.

Hori horrela, nabarmendu dute, museo eraikin ikaragarri bat egitea baino, aberatsagoa dela «esperientziak» eskaintzea; dena eraikinean kontzentratu eta «sagardoaren kultura monopolizatu eta zentralizatuko duen elementua izan beharrean», toki gehiagotara zabaltzea sagardoaren kultura: «Sagardoetxeak eduki ditzake sagastia, basoa, enbarkadero

bat ibaian, behatokia hilerri inguruan...», diote.

Beharrak aztertzea eta espazioak zehaztea, hurrengo pausoa

Orain, txostenaren idazketa bukatzen dutenean, herritarrei aurkeztu eta informazioa helaraziko diete. Eta hurrengo fase batean, proposamenak aurrera eginez gero, aztertuko dituzte dauden beharrak, eta zehaztuko dituzte herrian zehar sortuko diren espazio berri horiek. ||

I UDALA

Ikasturteko aurreneko plenoa, asteazken honetan

Udaletxeko pleno aretoan izango da, eguerdiko 13:30etan.

UZTAILEAN bildu zen azkeneko, Astigarragako Udaleko plenoa; eta datorren asteazkenean egingo dute osoko bilkura berrito, irailaren 26an; ikasturteko aurrenekoa izango da. Udaletxeko pleno aretoan bilduko dira, eguerdiko 13:30etan hasita.

Hileko azkeneko asteazkena izanik, ohiko deialdian bilduko dira. Gai-ordena ez dute adituzera eman, oraindik. ||

I UDALA

Azkeneko egunak, dirulaguntza eskaerak egiteko

Irailaren 28an bukatuko da epea, kultura, euskera, jai eta ikasketentzako laguntzak eskatzeko.

ZENBAIT dirulaguntza deialdi dauzka zabalik, Astigarragako Udalak. Eta horietako zenbaitetan, azkeneko egunak dira, eskaerak egiteko. Zehazki, irailaren 28ra arte eskatu daitezke, honakoak: kultura, euskera eta jaien arloetan 2017an antolatu ziren programa, proiektu eta jardueretarako dirulaguntzak; 2017-2018 ikasturtean Haurreskolak partzuergoan ibilitako haurrentzako laguntzak; eta Astigarragan ikasteko aukerarik ez duten DBH eta HHI-EPako ikasleek 2017-2018an ikastetxe publiko batera egindako bidaien dirulaguntzak. ||

I MUGIKORTASUN ASTEA

Elkartuko eskutik agur, aste 'mugituari'

Hitzaldia eskainiko du, etzi 17:00etan Herri Eskolan, Elkartu Gutxitasun Fisikoa duten pertsonen Gipuzkoako Federazioak.

MUGIKORTASUNA eta ariketa fisikoa izan dira protagonista Astigarragan, Europako Mugikortasun Astearen barruan. Tren berdean ibili dira, gimnasia saioak egin dituzte, *Why we cycle* pelikula ikusi dute, Holandako txirrindularitza kulturaz jabetzeko, eta astigarrak ere ibili dira bizikletan, Martutenera bueltaxka eginez eta ginkanako zirkuituan ibiliz.

Hiru egun izan dira, bost ekintzarekin bete dituztenak; eta seigarrena eta azkena, Mugikortasun Asteari itxiera emango diona, etzi izango da, astelehenarekin: Elkartu federaziokoak etorriko dira; Gutxitasun Fisikoa duten pertsonen Federazio Koordinatzailekoak.

Elkartuko kideek, hitzaldia eskainiko dute, Herri Eskolako areto nagusian, arratsaldeko 17:00etan hasita. ||



Gimnasia egiten aritu ziren ostegun goizean, Joseba Barandiaran plazan.

■ SAGAR UZTA FESTA

Uzta berriaren festa haundia, gertu

Datorren astean egingo dute Sagar Uzta festa, ostegunetik igandera bitarte.

KOLORETSU daude, Astigarragako sagarrondoak; eta laster hasiko dira, sagardotegietako tolareetako lanak, 2018ko uzta-ko sagardo berria egiteko. Eta nola ez, hori ospatzeko Sagar Uzta festa antolatu dute, beste urte batez. Datorren astean izango da, ostegunetik igandera arte.

Zita bikoitza jarri dute ostegunetik bertan. Aurrena, familientzako plana prestatu dute: apainketa tailerra sagarrekin, Joseba Barandiaran plazan, 17:00etatik 19:00etara. Aurrez eman behar da izena, doan, eta hiru aukera daude: 943 55 05 75 telefonora deitu, info@sagardoarenlurraldea.eus helbidera mezua idatzi, edo

www.sagardoarenlurraldea.eus webgunean sartu eta formularioa bete.

Beste ekintza, segidan izango da: pintxopotea herriko tabernetan, 21:00ak arte.

Egun haundia, igandekoa

Larunbatean ere izango dira beste bi ekintza: *Sagar motak ezagutz* mendiko Sagardo Bidean zehar mendiko buelta familiar. Izena eman behar da*, doan.

10:00, Sagar Uzta Erronka Indoor, Foru Plazan.

Baina igandekoa izango da, urtero bezala, egun haundia. Sagarraren Jaia ospatuko dute Foru Plazan, azokarekin, lehiaketekin... Eta noski, uzta berriaren aurreneko muztioa egin eta dastatuko dute bertan. ■

IRAILAK 27, osteguna

17:00-19:00, Familientzako apainketa tailerra sagarrekin. Joseba Barandiaran plazan. Izena eman behar da*, doan.

19:00-21:00, Pintxopotea, Astigarragako tabernetan.

IRAILAK 29, larunbata

09:30, *Sagar motak ezagutz*, Santiomendiko Sagardo Bidean zehar mendiko buelta familiar. Izena eman behar da*, doan.

10:00, Sagar Uzta Erronka Indoor, Foru Plazan.

IRAILAK 30, igandea

Sagarraren Jaia, Foru Plazan

09:30, Txirriskla Txistulari Taldearekin diana.

10:30-12:00, Sagar postre lehiaketa. Postreak frontoian entregatu beharko dira.

10:30-12:00, XI. Sagar Uzta Argazki Rally Digitalean. Izenemateak plazan edo aurrez*, 5 euroan.

11:00-14:00, Sagarraren azoka:

-Sagar mermelada tailerra. Izena eman behar da*, doan.

-Sagarraren erakusketa, dastaketa eta salmenta.

-Sagardo eta muztio dastaketa.

-Saski, txertaketa eta abarren erakustaldiak.

-Herriko baserritarren produktuen salmenta.

-Trikilariak herrian zehar.

11:00, Muztioaren elaborazioa: sagar biltzea, jotzea eta zanpatzea bertaratuak familien laguntzaz. 7-14 urteko gaztetxoei eta haien gurasoei zuzenduta. Izena eman behar da, doan.

12:30, Sagar dantza eta kirrikoketa.

13:00, Txalaparta eta 2018ko uztako lehenengo muztioaren topa herrikoa.

14:30, Herri bazkaria.

17:00, Afizionatuen pelota partidua.

*Izenemateak: 943 55 05 75, info@sagardoarenlurraldea.eus edo www.sagardoarenlurraldea.eus

■ GAZTE LOKALA

Futbito txapelketa eta Santiomendira irteera, asteburuan

Plan bikoitza prestatu du asteburu honetarako, Astigarragako Gazte Lokalak. Gaurkoan, futbito txapelketa antolatu dute. Eta bihar, irteera egingo dute, Santiomendira. Datorren asteburuan, beste bi zita: *paintball* larunbatean, eta plateren eskulan tailerra, igandean. ■

■ ELIZA

Katekesian izena emateko, astearte eta asteazkenean

Datorren astean eman beharko dute izena, katekesian, lehenengo, bigarren eta hirugarren mailako haurrek. Parrokiko bulegotik pasa beharko dute, asteartean edo asteazkenean, 17:00etatik 18:00etara. Egun horietan banatuko dute materiala (liburua eta fitxa); 20 eurokoa izango da materialaren prezioa. ■

■ MEMORIA HISTORIKOA

Memoriari buruzko lanerako, jende bila

Astigarragako memoria historikoa berreskuratzeko lanean ari da Maddalen Laburu, eta horretarako, elkarrizketatzeko ahalik eta jende gehien bildu nahi du. Horregatik, Gerra Zibilean edo Frankismoan Astigarragan edo astigartarrei gertatutako gehiegikeriak, pasarteak edo injustiziak kontatu nahi dituztenei, telefonoz Udalera deitzeko eskatu die: 943 33 50 64. Gero, Laburu bera jarriko da haiekin harremanetan. ■

■ EAJ-PNV

Alderdi Eguna joateko autobusa, Astigarragatik

Irailaren 30ean, igandean, ospatuko du Alderdi Eguna EAJ-PNVk, Forondako zelaietan, Gasteiz inguruan. Eta bertara joateko, autobusa jarri du Astigarragako EAJ-PNVk. Donostia Ibilbidetik (Hernani aldera) abiatuko da, 08:30etan; eta 19:30ak aldera egingo du buelta. Autobusa eta bazkaria, 30 euro izango dira; eta inork bere bazkaria eraman nahi badu, 5 euro dira autobusa. Apuntatzeko, astelehenera arte dago epea: 682 764 522 telefonora deitu, edo astelehenean pasa, 19:30etatik 20:30etara, Kale Nagusia 5eko lokaletik. ■

Sagarrak bildu eta muztioa egiteko, tailerrak

Familientzako plana prestatu dute Sagardoetxean, iraileko eta urriko asteburuetan; aurrez eman behar da izena. Erakusketak ere jarriko dituzte, datozen hilabeteotan.

UDAZKENA iristearekin batera, zenbait ekintza antolatu ditu Sagardoetxeak, tolareetan muztioa egiten hasiko direla aprobetxatuz. Eta hori da, familia eta taldeentzako proposatu duten plana: *Sagarrari*

zukua atera familian! izango da, iraileko eta urriko asteburu guztietan, datorren igandean izan ezik. Larunbatetan 12:00etan eta 17:00etan egin daiteke; igandean, eguerdian bakarrik. Izena eman behar

da aurrez: 943 55 05 75, info@sagardoarenlurraldea.eus edo www.sagardoarenlurraldea.eus. Helduentzat 4 euro dira, haur eta gazteentzat doan.

Sagardo sagar barietateen erakusketa ere ikusgai dago

azarora bitarte, 70 barietate baino gehiagorekin. Eta beste bi jarriko dituzte: Sagar Uzta Argazki Rallyko argazkiaren urriaren 19tik 31ra; eta *Sagardo eta emakumea* izeneko, azaroaren 5etik 25era.

■ AEK EUSKALTEGIA ETA UDALA

AEKn ikastera animatzeko deia, Udalak

Dirulaguntza emango die aurten ere, euskaltegian arituko diren herritarrei.

IKASTURTE berria hastearrekin batera, matrikula garaian murgilduta dago Astigarragako AEK euskaltegia ere. Eta Udalak, deia luzatu die euskera ikasi edo hobetu nahi duten herritarrei, euskaltegian apuntatzera animatu daitezten.

Joan den astean, euskaltegian bertan izan zen Urkiri Salaberria euskera zinegotzia, Udalaren babesa adierazteko; eta baieztatu zuen, aurten ere dirulaguntza emango diela, ikasturte honetan euskaltegian arituko diren astigartarrei. Dirulaguntza hori, %100ekoa izan daiteke, bost multzotako

herritarren kasuan: arazo ekonomiko larriak eduki eta agiri bidez justifikatu ditzaketenak; 12 urtera arteko haurrak dituzten gurasoak; langabezian daudenak; eta merkataria direnak. Gainerako herritarrek, berriz, matrikularen %75a jasoko dute, ikasturtearen bukaeran.

Informazio gehiagorako eta euskaltegian apuntatzeko, lau bide jarri dituzte aukeran: kultur etxeko bigarren solairura azaldu, 607 610 687 edo 688 746 639 telefonoetara deitu, edo astigarraga@aek.eus helbide elektronikora idatzi. ■



Astigarragako AEKko arduradunak eta Urkiri Salaberria euskera zinegotzia.

TXIRRINDULARITZA



Pistara bueltan da Urko Semperena (eskuinean), atzotik. Argazkia: Martin Early

Pistako Espainiakoan atzotik, Semperena

Euskadiko selekzioak aukeratu du Urko Semperena, Valentzian aritzeko asteburuan.

ERREPIDEKO lasterketen azken txanpan murgilduta dago Urko Semperena astigartarra; baina asteburu batez, errepidea alde batera utzi, eta pistan lehiatuko da, berak gustuko duen modalitatean hain justu.

Eta ez du nolana proba izango, gainera. Pistako Espainiako Txapelketa lehiatzeko deitu du Euskadiko selekzioak, elite eta 23 urtez azpikoen kategorian aritzeko.

Berarekin batera izango

dira, Euskadiko selekzioarekin lehiatzen, beste bost txirrindulari; bera bezain gazteak batzuk, eta beteranoak besteak: Unai Iribar, Gorka Etxabe eta Aitor Larrañaga gipuzkoarrak, Illart Zuazubiskar bizkaitarra, eta Aitor Rey arabarra; Euskadiko espezialista onenak, hain zuzen ere.

Aurreko asteburuan, Euskaldun Torneoko azkeneko proban aritu zen Semperena, Altsasun; baina ez zuen bukatu. ||

ESKU PELOTA

Munduko Txapelketan izango da Gurutzealde

Urriaren 14tik 20ra Bartzelonan jokatzeke aukeratu du Espainiako selekzioak. Trinketean ariko da astigartarra, banaka.

PELOTAKO Munduko Txapelketan izango da Oier Gurutzealde astigartarra. Bartzelonan jokatuko da, urriaren 14tik 20ra, eta Espainiako selekzioak aukeratu du Gurutzealde, trinketean aritzeko, eskuz banaka.

Bertan elkartuko dira, munduko espezialista onenak; gutzira, 14 herrialdeko 300 pelotari baino gehiago, lau modalitateetan: pala eta paleta, esku pelota, zesta punta eta frontonisa. 160 partidu baino gehiago jokatuko dituzte, Vall d'Hebron eta Bac de Rodako frontoietan.

Gurutzealde, zehazki, Vall d'Hebroneko frontoi olinpikoan ariko da, urriaren 15ean hasita. Bi multzotan banatu dituzte partehartzaileak, eta Mexiko eta Uruguayrekin tokatu zaio Gurutzealderi. Beste multzoan, berriz, izango dira Frantzia, Kuba eta Bolivia.

Mexikoren kontra jokatuko du estreinakoa Gurutzealde, urriaren 15ean, 10:00etan hasiko den jaialdian bigarren partiduan. Ligaxkako beste partidua, berriz, urriaren 17an izango du, Uruguayren kontra, goi-

zako 10:00etan hasita bigarren partiduan hori ere.

Aurrera eginez gero, urriaren 18an jokatuko du semifinala, goizeko 09:00etan; eta urriaren 20an izango da final handia, eguerdiko 13:00etan.

Espainiako Kopa gaur zortzi, Bartzelonan bertan

Lehenago ere izango da Bartzelonan, astigartarra, Mundialean erabiliko duten trinketea ezagutzen. Izan ere, Espainiako Kopa jokatuko du bertan, datorren asteburuan. ||

SASKIBALOA

Oiartzunen kontra gaur, kiroldegian

Mailari lasaitasunez eutsi eta, posible bada, play offetara begiratzeko helburuarekin, ondo baino hobeto hasi du liga, Mundarrok, mutilen Gipuzkoako 1go mailan. Eta gaur, bigarren garaipena lortu nahi dute, Astigarragako kiroldegian: Oiartzunen kontra, 18:00etan hasita. ||

FUTBOLA

Estreinakoa Zarkumendegin, gaur

Modurik onenean hasi du liga Mundarrok, Erregional Preferenteen mailan, garaipen batekin. Eta bigarrena lortu nahi dute gaur, Zarkumendegin kiroldegian: Vasconiaren kontra, arratsaldeko 16:00etan. ||

KIROL TABLA ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA			
Mut. Erregional Preferenteak	Mundarro-Vasconia	Zarkumendegin	Gaur 16:00
Mut. Erregionalak 1go maila	Sporting Herrera-Mundarro	Herreran	Bihar 17:30
Mut. Jubentek Ohor. maila	Bilintza-Mundarro	Rexelen	Gaur 19:30
Mut. Jubentek 1go maila	Mundarro-Bilboraia	Zarkumendegin	Gaur 18:15
Nik. Kadeteak	Amara Berti-Mundarro	Martutenan	Gaur 14:30
Mut. Kadeteak Ohor. maila	Mundarro-Soti Ona	Zarkumendegin	Bihar 16:00
Mut. Kadeteak 1go maila	Osadar-Mundarro	Hibelen	Gaur 15:00
SASKIBALOA			
Mut. Gipuzkoako 1go maila	Mundarro-Oiartzun	Kiroldegian	Gaur 18:00
Mut. Gipuzkoako 3. maila	Mundarro-Larramendi	Kiroldegian	Gaur 16:00
Mut. Juniores 1go maila	Zasaitz-Mundarro	Zasaitzen	Bihar 16:00



Irailaren 29ra arte

GARDEN LORALDI

Iparalde Bidea, z/g ASTIGARRAGA



■ MUNDARRO KIROL ELKARTEA **ESKUBALOIA**

«Aurtengo helburua da kategoria ezagutzea eta partiduak borrokatzen jarraitzea»

Eskubaloiko taldea osatu du, bigarren urtez, Mundarro kirol elkarteak. Nesken jubenil mailan arituko dira, aurtengo: «kategoria berria da guretzat, eta txikienak izango gara», onartzen du Javi Loiarte entrenatzaileak.

URRIAN hasiko du Liga Mundarro Kirol Elkartearen nesken eskubaloiko taldeak. Javi Loiarteren esanetara, bigarren urtez jantziko dute Mundarro Kirol Elkartearen elastikoa, oraingo honetan aldaketatxo batekin; jubenil mailan arituko dira, aurrenekoz: «kategoria berria da guretzat, eta bertan, txikienak izango gara», azaldu du Loiarterek. Harekin izan da Kronika, entrenamendu batean.

12 jokalarik osatuko dute aurtengo taldea, gehiengo astigartarra.

Bigarren urtea duzu eskubaloiko taldeko neskekin. Nola ikusten duzu taldea?

Ondo, egia esan. Talde bezala jokatzeko hasi zirenean [duela hiru denboraldi hasi ziren Martuteneko Arantzazuko Ama ikastolan] ez zekiten eskubaloira jokatzeko; eta orain bai, jokatzeko dugu.

Aldaketarik ba al dago aurtengo taldean?

Ba bai... aurtengo neska berri bat etorri da, Naroa du izena eta urnietarra da. Hortaz, dena, 12 jokalarik izango ditugu aurtengoan.

Zein izango dira aurtengo taldearen helburuak?

Kontuan hartu behar da kate-



Jubenil mailako eskubaloiko taldea aurreko asteko entrenamendu baten ondoren.

goria berria dela guretzat, eta bertan txikienak izango gara. Jarraitu behar dugu ikasten, izan ere, kategoria honetan eskubaloia aldatu egiten da. Aurtengo helburua da partiduak borrokatzen jarraitzea

Laugarren urtea izango da hau, infantiletan hasi zen taldea. Jon Rios zen entrenatzailea, eta orduan nik esaten nien jubenil mailan hasiko zirela eskubaloian jokatzeko, ordura arte, lasai egoteko.

Prozesu luzea izan da, baina lortu dute! Hori bai, lan

«Eskubaloiko Eskolan ere, 19 gaztetxok eman dute izena; horietatik 16 neska dira».

haundia egin dute.

Zein dira taldearen indarguneak eta ahuleziak, zure ustez?

Indarguneen artean nabarmenduko nituzke neska hauek daukaten ikasteko gogoia, eta

baita ere, beren artean daukaten harremana.

Ahulezien artean, aldiz, kategorian gaztetxoak izango dira. Baina hori bakarrik ez, beste taldeekin konparatuz gero, Mundarroko neska berandu hasi ziren eskubaloian. Kategoriako beste taldeetan, besteak beste, Zarautzen, Pulpón... txikitatik bizi izan dute eskubaloia.

Hauek, aldiz, duela hiru urte erabaki zuten taldea sortzea. Eta hiru urte pasata, hori egotea meritua haundia da.

Aurtengo jokalariek

- June Loyarte
- Lide Loyarte
- Amaia Olaiz
- Olaia Lizeaga
- Naia Hernández
- Maren Vieites
- Maider Irazusta
- Iraia Olazabal
- Iraia Prieto
- Iratxe Pagadizabal
- Naroa Urdangarin
- Elene Errazkin

Eskubaloia bada Astigarragan neska erakarri dituen kirola. Zure ustez, zergatik uste duzu hala dela?

Eskubaloia kirol polita da neskek jokatzeko. Batetik, kantxa txikiagoa delako, adibidez, futbolekoa baino. Eta bestetik, hainbat konponente daudelako: indarra, kontaktu asko eta harreman estua. Horregatik guztiatik nik uste neskei asko gustatzen zaiela.

Eskubaloiko Eskolan ere, 19 bat gaztetxok eman dute izena, eta horietatik 16, neska dira.

Aurtengo, gainera, Eskubaloiko Eskola sortu duzue. Zer landuko da bertan?

Helburua da jolasaren bidez pixkanaka eskubaloian aritzen ikastea. Gainera, eskubaloiko taldeko gaztetxoek beraiek eramango dute taldea. ■

■ MUNDARRO

Aizkorri gora, koadrila ederra

Talde majoa elkartu zen aurreko igandean, Mundarro antolatutako irteeran.

AURREKO asteburuan eman zien hasiera Mundarroko, ikasturte berriko mendi irteerei. Aizkorriko tontorrera joateko zita jarri zuten igandean, eta talde polita elkartu zen Joseba Barandiaran plazan, hara joateko.

Eguraldi ederra lagun eta umore onean, gustora igo ziren Aizkorriara, bertan atera zuten taldeko argazkiak erakusten duen bezala. Ziur ez dela izango, ikasturte honetako azkeneko irteera! ■



25 lagun inguru igo ziren elkarrekin, aurreko igandean, Aizkorriko tontorrera. Argazkia: Mundarro


■ ISKIBI KANPIÑA JOSEBA ELIZEGI

«Azken egun hauetan oso maitatuak sentitu gara»

Denboraldia bakarrik ez; oraingoan, kanpiña bera agurtuko dute Iskibiko langileek. Joseba Elizegi, David Alcrudo eta Joxe Manuel Maritxalarrek utzi egingo dute Iskibi. Goizuetarrak, eta lagun guztiak agurtzeko, festa egingen dute gaur, 23:00etan hasita.

MAIATZEAN hasi, eta irailera arte ireki dute Goizuetako Iskibi kanpiña azken 15 urteetan, Joseba Elizegi astigartarrak, David Alcrudo sukaldari kataluniarrak eta Joxe Manuel Maritxalar pasaitarrak.

Pasa den larunbatean, azken hamar bat urteetan bezala, Euskal Jaia antolatu zuten, udarako denboraldiari amaiera emateko. Baina aurtengo itxiera ez da udara agurtzeko bakarrik izango; kanpiña uztekoak dira oraingo langileak, eta horregatik, goizuetarrak eta bidean egindako lagun guztiak agurtzeko festa berezia antolatu dute gaurko.



Globoan Goizueta gaina zeharkatzeko aukera eman du Iskibik, 2011 eta 2008an.

‘Nonguayaz’ talde oiartzuarrak, musika

Dagoeneko itxita dago Iskibi kanpiña, baina gaur berriro irekiko ditu ateak, festarako.

Gaueko 23:00etan hasiko da agur festa, eta Joseba Elizegik aitortutakoaren arabera, «erdi festa, guk ere parranda egitekoa» izango da. *Nonguayaz Unitate Nuklearra* musika taldeak kontzertua emango du, eta parranda goizaldera arte luzatzeko asmoa azaldu dute. Mozorrotuta joateko dei egin dute. Bestalde, gogorarazi dute

gaurkoan ez dela otordurik emango.

«**Harreman haundia egin dugu goizuetarrekin; herriak ikaragarri lagundu digu beti**» Orain 15 urte hartu zuen kanpiña Joxe Manuel Maritxalarrek «Berrian iragarki bat ikusita», azaldu du Elizagik. «Bartzelonako Euskal Etxetik ezagutzen zuen David Alcrudo, eta beraiek jarri ziren. Tokia gusatu, eta geratu egin ziren, eta ni orain dela 13 urte hasi nin-

tzen. Azken zazpi bat urtetan David eta ni ibili gara, baina Joxe Manuel beti aritu da gurekin, inguruan, laguntzen».

Beste laguntza bat ere azpimarratu nahi izan du Elizegik. «Esperientzia oso ona izan da, oso polita. Azken egun hauetan ere oso maitatuak sentitu gara, eta poza ematen du. Oso integratuak sentitu gara beti. Harreman haundia egin dugu goizuetarrekin; herriak ikaragarri lagundu digu beti, ekin-tza guzietan!»

Argazkia: FELIX LOARTE



Saio ederra egin zuen hainbat herri kiroletan, lehengo asteko Euskal Jaietan.

Kanpotarrentzat oasi, bertakoentzat aisialdi gune Hain zuzen, makina bat ekin-tza antolatu dituzte Iskibi kanpiñean azken urteetan, eta goizuetarrek ere gozatu dute.

«Herriarrentzako izan da udarako aisialdi gune bat gehiago, herritik pixka bat aparte. Gehienbat jatetxe eta tabernan egin dugu lan». Baina baita bestelako ekitaldiak antolatzen ere. Euskal Jaiak, adibidez, azken hamar urteetan egin dituzte, udara agurtzeko. Era berean, Garagardo Festa egin dute azken lau urteetan. BTT zeharkaldia, berriz, denboraldia hasterako, maiatzean antolatu dute bederatzita urtetan. Bestelako ekitaldi berezien artean, berriz, antolatu izan dituzte mus txapelketak, bertso barrikoteak, pelikulen emanaldiak eta solasaldiak, antzerki saioak, globo aerostati-koan bueltaxkak...

Goizueta eta ingurukoek hainbat ekitaldirekin gozatu duten bezala, kanpotarrek lasaitasuna maite izan dute; «familia giroa, txikia eta lasaia izatea» nabarmendu dute.

«Eroso sentitu direla esan digute, gertuko tratuagatik. Ez direla zenbaki huts sentitu». Eta ez dira gutxi kanpotik etorritakoak. «Azken lauzpabost urtetan nabaritu da Donostialdean izandako turismoaren gorakada».

«Nafarroan euskaraz egiten duen herria ezagututa harritu egin dira asko»

Turista horiek, orokorrean, erreka eta inguruko parajeekin gozatu dute. «Asko, eta bereziki estatukoak, txoratuta ibili izan dira Artikutzako berde kolorearekin, eta inguruan ura alde guztietan edukitzearekin. Beti saiatu izan gara inguruko ibilbideak proposatzen. Goizueta herria ere oso polita dela esan dute beti. Eta estatuko jende asko harritu egin da Nafarroan euskaraz egiten duen herria ezagututa. Uste zuten Nafarroan ez dela euskaraz egiten! Azkenean, ikusi dugu herriko jendea kanpokoarekin nahasten, eta oso harreman politikak sortu dira. Gu ere, Goizueta bihotzean sartuta joanen gara.»

Argazkia: ISKIBI KANPIÑA

■ EUSKAL HERRIKO RALLYSPRINT TXAPELKETA

Aramaion txapeldun eta Euskal Herrikoan bigarren, Zozaia

Larunbatean jokatu zuen Jon Zozaia goizuetarrak, Mattin Villaresekin, XVII. Aramaioko Rallysprinta. Txapeldun izan ziren.

KOPILOTO lanetan aritzen da Jon Zozaia goizuetarra, Mattin Villares piloto urdazubiarrarekin, rallyetan, eta azken proban marka bikaina egin dute.

XVII. Aramaioko Rallysprinta jokatu zuten pasa den larunbatean, Renault Clio Maxi kotxea-

rekin, eta dezima bakarreko aldearekin, aurrenekoak izan ziren: 15:15:30 egin zuten, eta bigarrenak, Enrique Barrenetxea eta Anartz Onandiak, 15:15:40.

Dena den, azken horiek izan dira Euskal Herriko Rallysprinteko txapeldunak,

Aramaiokoa baitzen azken proba puntuagarria, eta alde txikia baitzegoen aurreneko hiru bikoteen artean. Goizuetarra bigarren izan da, Euskal Herrikoan, eta hirugarren egin dute Aingeru Castrok eta Alaitz Urkiolak. ■



Villares (ezkerrean) pilotoa eta Zozaia (eskubian) kopilotoa, txapelarekin.

■ GOIZUETA-ARANO EUSKARAREN KONTSEILUA

Euskararen Lege berriaren alde, mobilizazioa urrian

Kontseiluak nahi du «euskararen ofizialtasuna Nafarroa osoan» aitortzea, eta mobilizazioa deitu du Iruñean, urriaren 27rako.

VASCUENCEAREN Foru Legeak Nafarroa hirutan banatu zuen, eta, «ondorioz, lurraldearen zati handi bat eskubidez gabetu zuen, euskaraz bizitzeko aukerarik gabe» adierazi du Euskararen Kontseiluak.

Orain, ordea, hizkuntza-politikaren alorrean Nafarroan bizitzen ari den egoerak bultzada berria emateko aukera zabaldu duela uste du Kontseiluak. «Behingoz, euskaldun guztiak bereizketarik gabe, berdin hartuko dituen egoera sortzeko aukera ikusten dugu. Nafarroako Parlamentuan Euskararentzat Lege berria den abagunea probestuta, euskaldunok indar egingo dugu herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatuko dituen egoera sortzeko», azaldu du Kontseiluko idazkari nagusi Paul Bilbaok.

«Behingoz, euskaldun guztiak bereizketarik gabe, berdin hartuko dituen egoera sortzeko aukera ikusteko dugu»

Hori horrela, «nafar guztiei euskaraz bizitzeko eskubidea bermatuko dien ofizialtasuna eskatzeko» mobilizaziora egin du dei urriaren 27rako, Iruñean, arratsaldeko 17:00etan hasita.

Lege berriak, hiru irizpide
«1968tik hona, Nafarroako euskaldunok, beren hizkuntza-eskubideen urraketa sistematikoa pairatu dute», azaldu du Kontseiluak, hirutan bana-

tu zuela Euskararen Foru Legeak, Nafarroa. «Euskararen Foru Legeak eskubideak bermatu baino, mugatu egiten ditu. Euskaraz bizitzeko eskubidea soilik eremu euskalduneko herritarrei aitortzen zaie; gainerakoei ez».

Baina egoera berria sortu dela-eta, momentua aprobe txatu behar dela dio. «Euskararen garapenaren aldeko aukera leihoa zabaldu da Nafarroako Parlamentuan, eta aukera hori baliatu du Kontseiluak Euskararen Lege berria egiteko herritarrekin elkarlanean». Hain zuzen, Parlamentuak lege berria proposatzeko agindua eman du, hiru irizpideren arabera: nafarren hizkuntza-eskubideen bermea, hizkuntza-zonifikazioa eta euskararen ofizialtasuna Nafarroa osoan. ■

■ EREÑOTZU IKASTAROAK

Azken egunak, aerobik eta yogan izena emateko

Astelehenean bukatuko da epea. Auzo Udalean eman behar da izena.

AUKERA dago aurten ere Ereñotzun yoga eta aerobik ikastaroak egiteko, eta izena emateko epea astelehenean bukatuko da.

Aerobik astelehen eta asteazkenetan egin ahal izango da, 18:00etatik 19:00etara. Yoga, berriz, astearte eta ostegunetan, 17:00etatik 18:30etara. ■

■ EREÑOTZU

Xabi Solanoren 'Inpernuko', gaur zortzi

Emanaldi berezia prestatu du Xabi Solano Maiza trikilarri ereñotzuarrak, etxekoan aurrera ateratzeko; *Inpernuko* deitu dion kontzertua emango du datorren larunbatean, hilaren 29an, 22:00etan Ereñotzuko frontoian, eta sarrerak salgai daude, 12 euroan, Ereñotzuok Auzo Udalean eta Hernaniko Biteri kultur etxean. Ez da bakarrik ariko, gainera; Esne Beltzako abeslariak trikita ardatz hartuta, bere bizitzako istorio kuttunenak aterako ditu jendaurrera, dantza, ikus-entzunezko eta antzerkiak lagunduta. ■



Jatorria bueltatzen da Solano, 'Inpernuko'.

■ GOIZUETA

Azken zita, Elkartasun desegiteko

Hirugarren bilera egingen da gaur, 18:30etan eskolako jangelan, Elkartasun Elkarte desegiteko. Azken bilera izanen da gaurkoa. ■

■ GOIZUETA-ARANO

Familia langile posturako, deialdia

Atzo argitaratu zuen deialdia Leitza, Goizueta, Arano eta Aresoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, etxeko langile zerbitzurako familia langile posturako, eta 15 egun naturaleko epea dago aurkezteko: idazkaria@mendialdea.eus. ■

Emakumeen parte-hartzea, aztergai

Asteartean bukatuko da epea beka eskaera egiteko, Goizueta eta Aranoko emakumeek XX. mendeko bigarren erditik gaur egun arte parte-hartze arloan egin duten lana aztertzeko. Informazio gehiago: www.goizueta.eus / idazkaria@mendialdea.eus / 948 510 840. ■

ZUBI-LANA

Lan bila dabilen herritarrak bertan mezu bat jarri nahi badu, astero jakinarazi beharko dio Kronikari; mezuan azaldu beharko du zein lan mota bilatzen duen edo zertarako eskaintzen duen bere burua. Aldiz, lana eskaintzen dutenek, iragarki merke gisa argitaratu beharko dute lan eskaintza; eta Kronikak, Zubi-Lana txokoan argitaratuko die, debalde.

ESKAITZAK

LOGIKALINE enpresak bi lanpostu eskaintzen ditu zuntz optikoa Gipuzkoan komertzializatzeko. Kontratu indefinidoa, formazio sendoa eta lan-talde egonkorra. Interesatuak bidali C.V.a rrhh@logikaline.com helbidera

Etxeko lanak egiteko langile bila gabiltza Hernanin. Deitu: 653 705 904

LAN-BILA

Esperientziadun andreak lan egingo luke adinekoak zaindu edota lagun egiten. Orduetgia: goiz eta arratsalde. Deitu: 654 122 548

Kamarero edo enkofradore bezela lan bila. Deitu: 665 424 207

Helduak zaintzeko pertsona euskaldun bat eskaintzen da, kotxearekin.

Deitu: 678 992 110

Lan bila nabil pasteleri edo gasolindegiko arloan. Langilea, arduratsua eta euskalduna. Deitu: 636 506 182



Puntuak ematen ondoen asmatu zuten zazpi epaimahaikideak.

■ GOIZUETA UMORE ONA

Sagardorik onena aukeratzeko epaimahaikideak, finalera

Gainezka bete zuten Umore Ona elkarteak 80 lagunek, lehengo larunbatean, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak antolatutako Euskal Herriko Sagardo Txapelketa Herrikoieko bigarren finalaurrekoan. Denera, 10 sagardo ezberdin probatu eta bozkatu zituzten, eta horietako puntu gehien jaso zuten bi, Usurbilen hilaren 29an jokatu den finalean izango dira. Bertan izango dira baita ere, Goizuetako emakumeak. Izan ere, gizon artean, 7 emakumek osatutako mahai bakarrean eman zizkieten puntu gehien, hain justu, finalerako sailkatutako sagardoei, eta horregatik bi gonbidapen eman zizkien antolakuntzak, Usurbilerako. Final horretako afaria 32 eurotan dago, eta txartelak salgai daude 943 33 68 11 edo 688 856 294 telefonotan, www.sagardoa.eus webgunean edo info@sagardoa.eus helbide elektronikoa. ■

Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkarte Lan-taldea: A. Arbelaitz, I. Goñi, L. Goñi, B. Los Arcos, A. Moreno, J. Osa, M. Ramirez de Alda, L. Rekondo eta J. Zubitur. Egoitza: Larramendi 11(Hernani) ☎ 943 33 08 99 - 688 660 714.
 Eposta: kronika@kronika.eus, astigarraga@kronika.eus, urumea@kronika.eus eta publi@kronika.eus. Lege gordailua: SS-400/2014 ISSN: 2341-2976

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) | **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga)
DYA: 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 (Hernani) 943 33 56 44 (Astigarraga) | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103
 / Egunez: **TENA ASTIGARRAGA** Nagusia, 16 **943 543718** / Gueuz: **Castilla** Urbietta, 7 (Hernani) **943 552941**

GAUR Goizean lainoak agertuko dira oraindik, baina argitzera egingo du eta arratsaldean eguzkia izango da nagusi. Temperaturak ere gora egingo du. **Min.16° / Max.26°**

BIHAR Udazkenean udarako giroarekin sartuko gara. Zeruian eguzkia izango da nagusi orokorrean, eta temperatura altua izango da. Arratsaldean freskatuko du pikka bat. **Min.16° / Max.26°** (euskalmet)



EUSKAL SAGARDOA



Tilosean elkartu ziren ostegunean, 'Egin Zotz!' kanpainari hasiera emateko, pintxopotearekin.

Txotx eta zotz, Euskal Sagardoaz

Ostegunean eman zioten hasiera, 'Egin Zotz!' kanpainari. Ekintza ugari antolatu dituzte, Hernanin eta Astigarragan, abendura arte.

SAGARDOAREN kulturaren erdigune izango dira, beste behin, Hernani eta Astigarraga, datozen hilabeteotan. Eta oraingoan, Euskal Sagardoa da, bi herrietan makina bat ekintza antolatu dituena. Ostegunean eman zioten hasiera, Hernanin, Mikel Garaizabal enologo sumilerrak gidatutako pintxopotearekin; eta

beste pintxopote bat gidatuko du Garaizabalek berak, datorren ostegunean, Astigarragan; arratsaldeko 19:00etan jarri dute zita, Joseba Barandiaran plazan.

Hortik aurrera, bi herrietan egingo dituzte ekintzak; nagusiki bi: afari maridatua, herriko sagardotegi edo jatetxeren batean; eta Euskal Pintxo Potea.

Hernaniko afari maridatuak, Tripontzi eta Errioguarda jatetxeetan egingo dituzte; eta Astigarragakoak, Ipintza sagardotegian eta Ikatza tabernan. Guztietan, dagoeneko egin daitezke erreserbak.

Gainera, kanpainak irauten duen bitartean, zozketak egingo dituzte, Euskal Sagardoa kontsu-

mitzen duten bezeroen artean; eta bezero onenei, egunero kon-

tsumitzen dutenei, mokadu bat oparitutako diete. II

'EGIN ZOTZ!' KANPAINA

HERNANIKO EGITARUA

Urriak 4, Euskal Pintxo Potea.

Urriak 5, Afari maridatua Tripontzi jatetxean, 20:30etan. Euskal Sagardoa eta Trinpontzik jarritako afaria uztartuko dira. Erreserbak Trinpontzin: 943 55 57 24.

Urriak 8-21, Bakailu Astea, Euskal Sagardoak babestuta.

Azaroak 1, Euskal Pintxo Potea.

Azaroak 15, Afari maridatua Errioguarda jatetxean, 20:30etan. Euskal Sagardoa eta Errioguardak jarritako afaria uztartuko dira. Erreserbak Errioguardan: 943 55 57 24.

Abenduak 6, Euskal Pintxo Potea gidatua, herriko tabernetan. 19:00etan, Zinkoenean hasita.

Abenduak 11, Afari gidatua.

Abenduak 15, Kanpaina bukaera-ko festa.

ASTIGARRAGAKO EGITARUA

Irailak 27, Euskal Pintxo Potea, Mikel Garaizabalek gidatua. 19:00etan, Joseba Barandiaran plazan hasita.

Irailak 30, Sagar Uzta festan.

Urriak 4, Euskal Pintxo Potea.

Urriak 26, Afari maridatua Ipintza sagardotegian, 20:30etan. Euskal Sagardoa eta Ipintzak jarritako afaria uztartuko dira. Erreserbak, Ipintzan: 688 811 724.

Azaroak 1, Euskal Pintxo Potea gidatua. 19:00etan, Norberto Almandoz plazan hasita.

Azaroak 9, Afari maridatua Ikatza tabernan, 20:30etan. Euskal Sagardoa eta Ikatzak jarritako afaria uztartuko dira. Erreserbak, Ikatzan: 943 55 49 89.

Abenduak 6, Euskal Pintxo Potea.

Abenduak 10, Afari gidatua.

Abenduak 14, Kanpaina bukaera-ko festa.

IRAGARKI MERKEAK

Okindegi/kafetegi bat traspasatzen da Hernanin, informazio gehiagorako: 658 737 096 Zinkoenean 16 m-ko garaje itxia salgai. Deitu: 607 349 163

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

MALAGA Irailaren 25an Bilibotik hegaldia 7 gau 3* hotelean pentzio erdian	475 €	IBIZA Urriaren 12an Bilibotik hegaldia 3 gau 3* hotelean, pentzio erdian	249 €
RIVIERA MAYA Urtarrilaren 13an Bilibotik hegaldia 7 gau 5* hotelean DENABARNE	850 €	LISSBOA Azaroaren 1ean Bilibotik hegaldia 3 gau 4* hotelean gosaria + bixtak barne	575 €
MALTA Urriaren 13an Bilibotik hegaldia 7 gau 3* hotelean pentzio erdian	452 €	ERROMA Abenduaren 5ean Bilibotik hegaldia 4 gau 3* hotelean gosaria barne	599 €
LANZAROTE Urriaren 19an Bilibotik hegaldia 7 gau 3* hotelean pentzio erdian	560 €	MARRAKECH Abenduaren 5ean Bilibotik hegaldia 4 gau 4* hotelean, gosaria + bixta barne	669 €
VIETNAM Urriaren 13an Bilibotik hegaldia 12 eguneko bidai, pentzio erdia + bixtak barne	1260 €		
60 URTE + PANTICOSA BAINUETXEA 4* Urrian 3 gau pentzio osoan (ederiak barne) + SPA	180 €		
BOITANA BAINUETXEA 5* Urria eta abenduan 5 gau pentzio osoan (ederiak barne) + SPA, bixta bodega	360 €		

BIDAIAK TALDEAN (informa zaituzte)
 URTEBUKARAN BIDAI BEREZIAK: Persia, Islanda, Camerun...



www.bidaibila.eus
TALDEENTZAKO AUKERA BEREZIAK

HERNANI BIDAIAK
 Urbietta, 6
 943 33 00 49

JARRAITU: